ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2010eko ekainaren 28a > Astelehena > VII. urtea > 283. zenbakia > 1,10 euro
Goiena 10 URTE www.goiena.net TOKIKOM



"EA eta ezker abertzalearen akordioak ez dit ezer esaten; ETA ez da inon aipatzen"

**Itziar Lamarain**
Arrasateko PPko zinegotzia > 08

**POLITIKA**
**Gipuzkoako Batzar Nagusiak Seminarioa trukatzearen alde** > 07

**ARETXABALETA**
**Trinketa beharrean punta-puntako rokodromoa egin gura du Udalak** > 11

**KIROLA**
**Hiru Handiak proban izan direnek diote arriskutsuago dela orain** > 21

**KULTURA**
**Ramon Arantzabalen gau magikoak Munibe plaza topera bete zuen** > 30

**ONDAREA** > INDUSKETAK

## Lezetxikin aztarna bila hasiko dira gaurtik uztailaren 17ra arte

**INGURUKOAK** Aurtengo lantaldea 17 ikaslek osatuko dute; gehienak, inguruko unibertsitateetakoak

**LEZETXIKI 2** Kobazulo txikia ia agortuta dagoenez, sekuentziarekin bukatzeko laginketak egingo dituzte

**BAIMENA** Indusketak egin ahal izateko Diputazioaren baimena eskatu behar izan dute; txostena bidali dute Aldundira > 02-03

**EKONOMIA** > GREBA

## Lanuztea babesteko deialdia

Ibarreko sindikatu abertzaleek biharko greban parte hartzeko deia egin dute > 07

## Sanjuanetan herritarren parte-hartzea handia izan dela azpimarratu dute

Atzo, domeka, izan zen Arrasateko jaietako azkeneko eguna; hala ere, herritarrek jaietarako gogoarekin segitzen zutela zirudien. Horren adibide herritar eta bisitari mordoxka izan zirela eguerdian Herriko plazan Erraldoi eta Kilikien kontzentrazioko dantzak ikusten; eta zela ez, baita Irujo txapeldunak Merino, Titin III.a eta Laskurainekin batera egin zuen pilota partidu ikusgarrian. Baina denak du amaiera eta Sanjuanei ere iritsi zaie aurtengoa. > 12



**ERRALDOIAK** Txikitxo eta nagusien arreta erakarri zuten erraldoi eta kilikien konpartsen dantzek atzo, domeka. JULIO CALLEJA

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-27
**Kultura** > 29-33
**Sailkatuak** > 34-35
**Telebista-Irratia** > 37
**Berri-zakua** > 38
**Asteburuko albuma** > 39



Eskoriatzako Zubiate labea. JULIO CALLEJA

**KULTURA** > ONDASUNA

## Zubiate labea inauguratuko dute gaur

2002an Eusko Jaurlaritzak Kultura Ondasun izendatu zuen Eskoriatzako Zubiate labea. Zaharberritu ostean, gaur 12:00etan inauguratuko dute *Bi esku buztina lantzen* erakusketarekin batera. > 29



Mundumirako materiala opari. Nahi?
Zoaz 3. orrialdera



**> HARTZAREN MATRAILA**

Leizeetako hartzaren (*Ursus Spelaeus*) ezker matrailezurra, laborategian garbitu ondoren.



**> HARTZAREN FEMURRA**

2008an egindako indusketetan, leizeetako hartz baten femurra lurretik ateratzen.



**> HARTZAREN HANKA**

Leizeetako hartzaren hanka osorik agertu zen: femurra, tibia eta peronea batera zeuden.



**> LEHOIAREN MATRAILA**

2008ko udan aurkitutako leizeetako lehoi (*Panthera Spelaea*) baten eskuineko matraila.



**> JEAN M. AUELEN BISITA IAZ**

Iaz uztailean *El clan del oso cavernario*-ren egile Jean M. Auel Lezetxiki bisitatzen izan zen.

**ONDAREA** > INDUSKETAK

# Aztarna gehiago bilatzen hasiko dira gaur Lezetxikin

**17 IKASLE** Aurtengo lantaldea 17 ikaslez egongo da osatuta; horien artean ez dago atzerritarrik, gehienak inguruko unibertsitateetakoak dira

**HIRU ASTE** Alvaro Arrrizabalaga oñatiarrak zuzentzen duen taldeak hiru asteko lan jarduna du aurretik; uztailaren 17an amaituko dute lana

**INDUSKETAK KOLOKAN** Indusketak airean egon dira; aurkitutakoaren gaineko txostena aurkeztu behar izan diote Diputaziori, baimena eman zezan




**MIRIAN BITERI** > ARRASATE

Aurten indusketak bertan behera geratzeko arriskua egon bada ere, azkenean ez da horrelakorik gertatu eta, zorionez, gaurtik, astelehena, izango da ostera ere Alvaro Agirrezabalagaren taldea Arrasateko Garagartza auzoan dagoen Lezetxiki kobazuloan lanean.

Azken orduko ezustekorik egoten ez bada, aurten 17 ikaslek jardungo dutela han uste du Aranzadiko arkeologo eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle Alvaro Agirrezabalagak. Madril, Bartzelona eta Salamancako baten bat baldin badago ere, boluntario gehienak Euskal Herriko unibertsitateetako ikasleak direla esan digu. Horren harira, Lezetxikiko aurtengo indusketetan atzerritarrik ez duela parte hartuko ere aipatu du: "Abuztuan Irikaitzen (Zestoa) egingo ditugun indusketetan atzerritarrak egongo dira, baina Lezetxikin ez; agian, krisia dela-eta izan daitekeela uste dugu".

**LEZETXIKI 2-REKIN BUKATU**

Betiko moduan, hiru aste iraungo dute esandako indusketek; hain justu ere, uztailaren 17an amaituko dituzte lanak. Arrizabalagak azaldu digu kobazulo txikia edo Lezetxiki 2 moduan ezagutzen dena ia agortuta dagoela, eta, hortaz, bi helburu nagusi dituztela han: "Sekuentziarekin behin betiko bukatu nahi dugu, eta, horretaz gain, hainbat laginketa egin behar ditugu. Hiru urte barru horren azterketa zientifikoak amaituta egon beharko du eta laginak hartu behar ditugu, hala nola polena, sedimentua eta mikrougaztunak aztertzeko".

Kobazulo handian, berriz, hondoa jo arte lanean "jo eta ke" jarraitu behar dutela gaineratu du. Ikerlariaren arabera, "material asko agertzen ari denez, bukatzeko gogoa ere badugu. 1996. urtean hasi ginen indusketak egiten; hortaz, hamabost urte eman ditugu hor lanean. Orain maila oso interesgarriak ari gara aztertzen, orain dela 150.000 urte ingurukoak, oso ezezagunak Kantauri aldean, eta horregatik, klasikoa da Lezetxiki".

**2.000 ORRIKO TXOSTENA**

Bestalde, esan bezala, aurtengo indusketak airean egon dira azken ordura arte. Arrizabalagak gogorarazi du iaz indusketak baimentzeari uko egitea erabaki zuela Diputazioak, eta behin betiko txostena aurkeztu behar zutela agindu zuela. Bukatu arte azken txosten hori egitea ezinez-



Joan den urteko lantaldea, gogor lanean.



**> GEZI-PUNTA**

2003. urtean Lezetxikin egindako indusketetan azaldu zen harrizko gezi-punta.



**> MASKORRA**

Urte berean maskorra agertu zen; garai hartako emakumeek zintzilikario moduan erabiltzen zutena.



**> 2009KO AURKIKUNTZAK**

Iaz aurkitutako hainbat hezur, hala nola hartzaren humeroa, falangea eta saihetsa.

koa zela eta baimena ematen jarraitzeko eskatu zioten; ordainetan, orain arte aurkitutakoarekin 2.000 orritik gorako txostena aurkeztu zuten apirilean.

**GIZA AZTARNAK**

Lezetxiki kobazuloa 1927an aurkitu zuten, eta 1956tik 1968ra bitartean, Jose Migel Barandiaranen eskutik indusketa garrantzitsuak egin zituzten han. Bertan topatu zituzten Euskal Herriko giza aztarnarik zaharrenak; orain dela 150.000 urtekoak. Hain justu, 30 urte inguru zituen emakume baten besahezurra topatu zuten. Azterketek ondorioztatu zuten Homo Heidelbergensis giza espeziarena izan zitekeela, Neanderthal aurreko espeziarena.

Arrizabalagaren arabera, "Lezetxiki oso garrantzitsua da Iberiar Penintsulan ikusten delako Neanderthalen eboluzio guztia; bai biologikoa, agertzen direlako aztarna fisikoak, hezurrak, baina baita eboluzio teknologikoa, ekonomikoa edo kulturala".

Horrez gain, harrizko tresnak eta animalien hezurrak ere topatu dituzte han; besteak beste, leizeetako hartza (*Ursus spelaeus*) eta leizeetako lehoiaren (*Panthera spelaea*) hezurrak.



GOIENKARIA

Alvaro Arrizabalaga > Lezetxikiko indusketako arduraduna

## "Denon betebeharra izan beharko litzateke kobazuloa ezagutzea"

**M.B.** > ARRASATE

**Aranzadiko arkeologoa eta Lezetxikiko indusketen arduraduna da Alvaro Arrizabalaga oñatiarra. Besteak beste, aurtengo indusketak kolokan egon direla esan digu eta Garagartza auzoan dagoen kobazuloak duen garrantzia azpimarratu digu.**



GOIENKARIA

**Aurten, azken momentura arte ez duzue jakin indusketa egiterik egongo zen ala ez, ezta?**

Hala da. Iazko indusketa baimena baldintzatuta jaso genuen Gipuzkoako Diputaziotik. Urte asko zirela eta baimena ematen zuten azken urtea izango zela esan ziguten orduan. Foru ordezkariekin bildu ginen eta horri buelta ematea lortu genuen, horren gainean egindako txosten potolo bati esker. Orain arte han aurkitutakoaren laburpena eta etorkizunari begira ditugun planak jasotzen dira horretan. Azken atal horretan, aztarnategia hobeto ezagutzeko eta kontserbatzeko eta horren garrantzia hobeto zabaltzeko hainbat plan azaltzen dira.

**Azken horren harira, Lezetxikik duen garrantzia behin baino gehiagotan azpimarratzeaz gain, arrasatearrek aztarnategi horrekin duten ardura ere nabarmendu duzu askotan... Lortu duzue horretaz jabetzea?**

Ez. Lezetxikin lanean hasi ginenetik aurkitu dugun oztopoa da hori. Arlo zientifikoan oso aztarnategi garrantzitsua da, gizakiak utzitako aztarnak daudelako hor; baina, kale mailan, Lezetxikiren berri ematea ez da batere samurra. Ez da aurrerapausorik eman horren harira, oso zaila egiten zaigu, aberastasun arkeologiko hori transmititzea. Horren harira, inbidia ematen dit Atapuercako aztarnategiak duen babesa; urtero saiatzen gara eta ez dugu lortzen iragazgaiztasun hori apurtzea. Jendea konturatu egin behar da hori arrasatear guztien aztarnategia dela.

**Eta zer egin daiteke iragaztaiztasun hori gainditzeko?**

Lehenengo pausoa da jarrera aldatzea. Arkeologiako aldizkari bat hartu eta berehala topatuko duzue Lezetxiki. Kanpoan kontzientzia handiagoa dago baliabide arkeologiko horien inguruan gure esparruan baino. Hemendik bi edo hiru urtera bukatutzat emango ditugu lanak, alde egingo dugu eta hor geratuko dira txosten eta argitalpen zientifikoak; baina, zoritxarrez, ez gara askoz urrutirako joango. Arrasaten ez badute horren berri hartzen, gure helburua bete barik geratuko da.

Kontuan hartu behar da aztarnategia kontserbatuko dela, urteotan presioa egon delako eta jarraipena egon delako. Hori ez dagoenean, herrikoek jabetu beharko dute hori guztien ondasuna dela eta mantendu beharra dagoela. Denon betebeharra izan beharko litzateke kobazuloa ezagutzea, ezagutaraztea eta mantentzea. Gu ezin gara hor egunero zaintzan egon. Inguruko jendeak arduratu behar du horretaz.

**"Kale mailan, Lezetxikiren berri ematea ez da batere samurra"**

**"Arrasaten ez badute horren berri hartzen, gure helburua bete barik geratuko da"**

Abantailaz betetako kluba!
Goiena kluba
EKAINEKO ZOZKETA
Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com
Kuota: 45 euro

REALEKO GORRO ETA BUFANDA
Bidali KLUBA GORROA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.


REALEKO MOTXILA
Bidali KLUBA MOTXILA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.


MUNDUMIRAKO MATERIALA
Bidali KLUBA MUNDUMIRA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.

Mundumira

UMEENTZAKO PUZZLEA
Bidali KLUBA PUZZLEA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.

Ikastolen Elkartea

SARI NAGUSIA
APIRILA-EKAINA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
GAU BAT TXOPEBENTA LANDETXEAN

• Tel. 94 625 49 23 / 629 45 50 79
• Basetxeta Auzoa. Gautegiz-Arteaga (Bizkaia)
• www.nekatur.net/txopebenta
• www.toprural.com
Maiatzean 20 urte beteko ditugu; Estatuko lehenengoak izan ginen.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

**GIZARTEA** > TXERNOBYLGO UMEAK

# Txernobylgo umeak eta haiek hartu dituzten gurasoak hunkituta

Zapatuan iritsi ziren Kievtik (Ukraina) zazpi neska-mutiko; uztailean iritsiko dira beste bi, uda hemen pasatzeko

**UBANE MADERA** > OÑATI

Besarkadak, muxuak eta zirrara agerikoak izan ziren Txernobylgo umeak Oñatira iritsi eta hemengo gurasoekin elkartu zirenean. Izan ere, etxekoak balira moduan hartzen dituzte ibarreko gurasoek ume horiek.

Adierazlerik onena da guraso gehienek (bikote bat izan ezik) esperientzia errepikatu, eta aurten ere Katia, Dasha edo Vladic etxean hartzeko deseatzen daudela. Adibidez, hiruna seme-alaba propio izan arren, laugarrena hartzeari baiezkoa eman dioten bina guraso ere badaude tartean.

Herenegun, zapatua, iritsi ziren 7-14 urte bitarteko zazpi neska-mutikoak Oñatiko Olakua auzora, goizaldeko bostetan Kievtik atera ostean. Uztailaren 31n beste bi iritsiko dira, nagusiagoak, "azterketetan dabiltzalako datoz beranduago", jakinarazi zuen Arantza Zubiak, Banoia Txernobylekin elkarteko ordezkariak.

Kontuak kontu, guztiak irailera arte izango dira gure artean, uda pasatzen, azkeneko 14 urteotan egin duten moduan, Banoia Txernobylekin elkarteari esker.

**SAHARARRAK ASTEBURUAN**

Bestalde, Ukrainia baino askoz hegoaldeagotik ere etorriko dira beste ume batzuk ibarreko bizilagunen eskuzabaltasunari esker: Saharako kanpalekuetan errefuxiatuta oso baldintza latzetan bizi direnak. 15 etorriko dira, Arrasatera, Aretxabaletara eta Bergarara iritsiko dira, oraingo asteburu honetan, irailera arte.



Txernobylgo umeak eta haiek hartu dituzten gurasoak, Olakua auzoan. UBANE MADERA



**Mikel Etxeberria**
Oñati

"Berarendako esperientzia aberasgarria da, baina gure umeendako ere bai. Beste kultura eta izaera batzuekin harremana izatea polita eta positiboa da".



**Vladic**
Ukrainia

"Hiru bider etorri naiz. Bergarara nator, Iñaki Unamuno aita, Mertxe Garai ama eta Haritz lagunarengana. Hemendik den-dena gustatzen zait. Oso polita da".



**Dasha**
Ukrainia

"Bederatzi aldiz etorri naiz. Oñatira etortzen naiz, oso gustura. Lizarrara joten gara, eta asko gustatzen zait, han lagunak ditudalako.".

## Debagoieneko jatorria duen nekazaritza turismoari saria

Txopebenta izena du, eta Bizkaian dago, Gautegiz-Arteagan. Hala ere, Debagoieneko jatorria dauka nekazaritza turismo horrek, ugazabetako bat, Arantza Gantxegi bergararra delako. Bada, saria eman diete Txopebentakoei, egubakoitzean. Nekazaritza turismoa abiarazi zuen Estatuko lehen etxea izatearren saritu dute. 20 urte dira aitzindari izan zela Txopebenta, eta eskerrak eman zizkieten ugazabei, "lan gogorragatik". Ekitaldia Txopebentan bertan egin zuten; tartean izan ziren Jaurlaritzako ordezkariak.




GOIENKARIA




SVMS
SERVIMASA
Sukaldeko altzariak eta osagarriak
Aitziturri 4, Posta-kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
20570 BERGARA
103 Industria poligonoa
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57
20100 LEZO

**Luis Mari Txabarri** > UNED-Bergarako Pedagogia irakaslea

# "15 lizentziatura gradu bilakatu ziren iaz, eta aurten gainerako ikasketa guztiak sartuko dira"

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

**Datorren ikasturterako eskaintza akademikoa aurkeztu zuen UNED-Bergara ikastetxe elkartuak joan den eguaztenean Donostian. Hango Pedagogia irakasle Luis Mari Txabarri ekitaldian izan zen, eta, datozen lerrootan, eskaintzaz eta *Bologna plana* moduan ezagutzen den ikasketa sistema berriaren gainean jardungo du.**



UNED-Bergarako irakasle Luis Mari Txabarri, egubakoitzean, Gasteizen. GOIENKARIA

**Zein da 2010-2011 ikasturteari dagokion eskaintza akademikoa? Titulazioen %100 Europako goi mailako hezkuntza espaziora egokitua eskainiko dituzue?**

Bai. Joan den urtean Bolognan sartu ginen bete-betean; 15 lizentziatura gradu bilakatu ziren eta aurten gainerako ikasketa guztiak sartuko dira. Hortaz, esan daiteke dauzkagula hainbat gradu bigarren urteari ekingo diotenak eta beste hainbat, aurten, lehen aldiz eskainiko direnak. Gradu hasierak egokituta daude, baina, logikoa denez, Bologna aurretik zeuden kurtsoak bere horretan utziko ditugu.

**Hainbat graduk, hortaz, bigarren kurtsoari ekingo diote. Dagoeneko aukera izan duzue Bolognaren lehenengo emaitzak jasotzeko?**

Oraindik ez; datu horiek, gainera, Madrildik kudeatzen dituzte eta oraindik ez dugu horien berri. Bologna dela eta ez dela, hainbat unibertsitatek ikasturtea irailean hasi eta uztail hasieran amaitzen badute ere, gu oraindik beranduago hasiko gara, eta iraileko azterketak mantendu egiten ditugu. Hortaz, hori guztia amaitu arte ez dugu emaitzen berri izango.

**Zenbat ikasketa eskainiko dituzue?**

30 titulaziotik gora izango ditugu. Urterokoez gain, berriak ere baditugu; tartean, Antropologia Soziala eta Kulturala eta Politika eta Administrazio Zientziak. Betiko ikasketei dagokienez, beste askoren artean, Gizarte-Hezkuntza, Psikopedagogia, Filosofia, ingeniaritzak, Zuzenbide eta Psikologia dauzkagu. Azken bi horiek dira, gainera, jendeak gehien eskatzen dituenak.

**Datorren ikasturterako, Euskal Herriko Unibertsitatean 1.760 lagunek eman dute izena Irakasle ikasketetan, eta 1.000 plaza eskainiko ditu. Noizko ikasketa horiek UNED-Bergaran?**

Aspalditik eskaintzekotan gabiltza, eta esaten da 2012-2013 ikasturtean hasiko direla eskaintzen. Data zehatzik ez badaukagu ere, berehalakoan emango dugu. Jendea kezkati agertzen da horrekin eta askotan eskatu diguten ikasketa da. Eskaera egon badagoela igarri dugu, jendeak horri heldu nahi diola. Gainera, hori eskatzen datorrena ez da 18 edo 20 urteko gaztea, zaharragoak dira.

**"Data zehatzik ez badaukagu ere, berehalakoan emango ditugu Irakasle ikasketak"**

**"Interesa dutenek irailaren 6tik urriaren 22ra bitartean egin ahal izango dute matrikula"**

**"Bolognaren datuak Madrildik kudeatzen dituzte eta oraindik ez dugu horien berri"**

Bitxikeria moduan kontatuko dizut bat baino gehiago etorri dela galdezka beste gradu bateko ikasgaiez; egokienak zeintzuk diren jakin nahi zuten, gero irakasle izateko ikasten hasteko eta lana aurreratuta izateko.

**Noiz zabalduko duzue matrikulazioa?**

Oporren ostean hasiko gara. Aurre-eskaerarik ez da egin behar, baldin eta masterretan eta doktoretzatan ez bada. Graduetan eta Bolognan sartuta ez dauden kurtsoetan interesa dutenek irailaren 6tik urriaren 22ra bitartean egin ahal izango dute matrikula. Doktoretzetan eta masterretan, berriz, irailaren 15ean zabalduko da epea eta hilabete iraungo du; urriaren 15era arte, hain justu.

Lizentziatura, diplomatura, ingeniaritzetan eta hizkuntzetan izan ezik, gainerako ikasketetan Internet bidez bakarrik aurkeztu ahal izango da eskaera, UNEDek duen webgunean.

---

*etxeko leihotik*



**Usoa Agirre** > uagirre@goiena.com

## Ohiturak ohitura direlako bakarrik ospatu?

San Juan inguru honetan lehengo ohitura zaharrekin ospatzen dugu udako solstizioa: sua, garoa, zuhaitza jasotzea, dantzak... Aspaldi nekazari inguruetan udaren ongietorria ospatzeko zena orain herri eta hirietako erritual da. Niretzako beti izan du San Juan gauak esanahi berezia, magikoa, baina azken urteotan "egin beharreko" ohitura moduan bizi izan dut.

Polita litzateke lehengo esanahi berezi hori berreskuratzea, gaua berriz ere magiko bihurtzea, uzta ospatzea, eguneroko erritmo nekagarria alde batera laga eta ingurukoekin gozatzea. Badakit edozein momentu dela ona horretarako, baina egun hauetan etorri zait burura zein garrantzitsua den inguruan dugunaz jabetzea. Denok egin beharko genuke urtean behin gutxienez ariketatxo hori –gehiagotan eginda ere ez litzateke txarra izango.

**"Eguneroko erritmoa alde batera laga eta ingurukoekin gozatzea"**

San Juaneko suak eman du hasiera eta hemendik aurrera jaiez gainezka izango dugu Euskal Herri osoa: San Pedroak, San Martzialak, Santiagoak, santurik gabekoak... Herri bakoitzak badu jaia berezi egiten duen ohituraren bat. Disfrutatu, beraz, udaz, jaiez eta erritualez, ez "egin beharra" dagoelako bakarrik; bizi erritualak eta sortu ohitura berriak. Nor garen eta non gauden jakin beharra dagoeta etorkizuna sortzeko.

**> Dantzari askok egin zuten dantza Antzuolako plazan San Juan bezperan. Txistulariok nekatu ere egin ginen hainbeste mutikori alpargatarena jotzen. Alabaina, poztekoa da hainbeste dantzari gazte plazan ikustea. Bejondeizuela!**

**> Traste zaharrak edo arropa zaharrak sutara botata egiten dute askok San Juanetako sua. Joan den astean estreinatu zituen Ertzaintzak uniforme berriak: txapelaren ordez bisera erabiliko dute. Zaharrak sutara bota ote dituzte?**

---

**EUSKARA** > SARIA

# Aitor Zuberogoitiak Miguel Unamuno saria irabazi du

Bilboko Udalak antolatzen duen sariketa lortu du 'Surf' lanarekin

**M.B.** > BERGARA

Huheziko irakasle Aitor Zuberogoitiak Miguel Unamuno euskarazko saiakera saria irabazi du, *Surf* lanarekin. Teresa Aguilar Gartzia Filosofian doktore eta Psikologian lizentziadunak, berriz, gaztelaniazko modalitateko saria lortu du, *Cuerpo textual en la cultura occidental* lanarekin. Bilboko Udalak antolatzen duen sariketa horretan euskarazko 13 lan aurkeztu dira, eta gaztelaniazko 47.

Bizitzaren erritmoen azelerazioari buruzko kontakizun pertsonala da Zuberogoitiaren lana. Bada, azelerazio horrek eguneroko bizitzan zelan eragiten duen deskribatu nahi du idazleak, esperientzia pertsonalak oinarri hartuta. Horrez gainera, azelerazio horren oinarrian dagoen garapen teknologikoari buruzko gogoeta ere bada.




**Arantzazu Ezkibel,** Goiena Telebistako kazetaria, Azkaraten zubisaltoa egin ondoren.

# Egin dugu salto

**Digitalera salto egin dugu:**

**> DEBAGOIENA OSOAN**

Goiena Telebista dagoeneko digitalean:
ARAMAION , ANTZUOLAN, ELGETAN, OÑATIN, BERGARAN, ARETXABALETAN, ESKORIATZAN, ARRASATEN ETA LEINTZ GATZAGAN.

Goitb
Goiena Telebista

***Ikustekoa!***

**POLITIKA** > BATZAR NAGUSIAK

# Gipuzkoako Batzar Nagusiak Seminarioa trukatzearen alde

Bergarako Errege Seminarioa eta Arrizuriaga jauregia trukatzeko erabakia aurtengo iraila baino lehen har dezala eskatu die Aldundiari

**ENEKO AZKARATE** > BERGARA

Bergarako Errege Seminarioaren eta Arrizuriaga jauregiaren arteko trukea egin dezala eskatu diote Gipuzkoako Batzar Nagusiek Foru Aldundiari. Horrenbestez, Gipuzkoako batzarkideek bat egin dute apirilean Bergarako udalbatzak hartutako erabakiarekin. Donostian erabaki zuten eguenean. Araudirako, Erakundeetarako eta Gobernurako batzordean. EAJk eta Hamaikabatek aurka bozkatu zuten eta gainerako alderdiek alde: sozialistek, popularrek eta talde mistoko ordezkariek (Aralar, Alternatiba eta EB); zortzi boto alde eta sei kontra.

**PERMUTA LEHENBAILEHEN**

Hauxe da erabaki zutena: batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzea Errege Mintegiaren eta Arrizuriaga jauregiaren arteko permutaren aldeko erabakia har dezala 2010eko iraila baino lehen. Esan behar da, UNED-Bergara Patronatuak apirilean onartu zuela permutaren gaineko erabakia atzeratzea datorren urteko irailera arte, Foru Aldundiaren eskariz.

Eguenean erabaki zuten bigarren puntua da Aldundiari eskatzea, bi eraikinen arteko trukearen ondorioz egin beharreko "inbertsioen planifikazioa aurkez diezaiola" UNED-Bergara Patronatuari bere adostasunerako, aurtengo iraila baino lehen, "permuta lehenbailehen" gauza dadin.

Beste hirugarren puntu bat ere onartu zuten: "Aranzadi ikastolaren egokitzapen lanak egiteko erabili behar zen diru partida, erabil dadila Arrizuriaga jauregia egokitzeko".

**EAJ: "EZ DAGO PRESARIK"**

Aintzane Oiarbide EAJko batzarkideak erabakiaren aurka bozkatu zuen. Haren ustez, ez dago presarik trukearen gaineko erabakia aurreratzeko. Izan ere, "Aranzadi ikastolari Patronatuak egin baitio behar dituen lokalen lagapena eta, beste alde batetik, UNEDek datorren ikastaroa kondizio onetan hasteko lanei ekin zaie, horretarako 1,5 milioi euro bideratuz".

Hirugarren puntuaren gainean, ostera, zera dio: "ez dakit nork eta nondik atera duen hau. Izan ere, ez baitago inongo baliabiderik aurreikusia egokitzapen hau egiteko".

**ERABAKIA "ERRESPETA DEZALA"**

Bergarako alkate Agurne Barrusok pozik hartu du erabakia, "baieztatzen delako" bi eraikinon trukea "ona dela", bai Bergarako herriarendako eta baita Bergarako UNEDendako ere. Eta, bestalde, mezu bat bidali nahi izan die Foru Aldundiari eta Bergarako EAJri: bi erakundek hartutako "erabakia errespeta" dezatela.

**EGOERA EKONOMIKOA**

Bergarako Udal Gobernuak eta oposizioko EA eta PSE-EEk permutaren alde daude. Baina EAJ erabat kontra agertu da.

Foru Aldundiak ere ez du erabakia garbi ikusten. Bi arrazoirengatik: batetik, etorkizunean Eusko Jaurlaritzak UNED-Bergara Patronatuan izan dezakeen balizko parte hartzea argitu barik dagoelako eta, bestetik, bizi dugun egoera ekonomikoak "ez duelako Arrizuriaga jauregiak behar dituen inbertsioak" egiteko aukerarik ematen.

**PERMUTA "EZINBESTEKOA"**

Bergarako Udalarendako, ostera, permuta "ezinbestekoa" da eta oso garrantzitsua lehenbailehen erabaki bat hartzea, datorren agintaldira arte "itxoin barik". Batik bat, trukeak UNEDen "etorkizuna ziurtatzen" duelako eta bi eraikinen arteko trukea orain hartzeak ez duelako "onartu ezin diren gasturik ekartzen".

Bergarako Udal gobernuak Errege Seminarioan kokatu nahiko lituzke Udal liburutegia eta Errege Mintegiko museoa, besteak beste. Bergarako EAJk, berriz, Arrizuriagarako Udal liburutegia eta kultura taldeendako lokalak nahiko lituzke eta UNED dagoen tokian utzi, Seminarioan.



Amagoia Lasagabaster –ELA–, Felix Irizar –ESK– eta Jose Ramon Kortabarria –LAB–. A.E.

**LANGILEAK** > DEIALDIA

# Biharko greba orokorrean parte hartzeko dei egin dute sindikatuek

Debagoien mailan egingo den manifestazioa izango da bihar Arrasaten, 18:30ean

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

ELA, LAB, ESK-STEE/EILAS, EHNE eta HIRU sindikatuek deitu dute biharko greba orokorra. Ekainaren 22an Espainiako Parlamentuak onartutako lan erreformaren aurka protesta egiteko da greba.

"Arrazoiak ditugu greba egiteko; esango nuke inoiz baino arrazoi gehiago ditugula", azaldu zuen Amagoia Lasagabasterrek prentsaurrekoan. Azkeneko 30 urteetan langileen aurka egon den eraso bortitzenaren aurrean gaudela gaineratu zuen Lasagabasterrek. Azken erreforma horrek "langileria ito" egiten duela esan zuen: "Besteak beste, kaleratzeak erraztu, merkatu eta, gainera, subentzionatu egingo dituzte", dio Lasagabasterrek.

**PROTESTAK**

Langileen eskubideak defendatzeko greba egitea beste aukerarik ez dutela izan azaldu dute sindikatuek. Hala, herritarrei dei egin die greba egiteko. Pikete informatiboak jarriko dituzte herriko plazetan, 05:30ean. Bestalde, manifestazioak hiriburuetan izango dira, 11:30ean; eta eskualdeko manifestazioa 18:30ean izango da Arrasateko Seber Altube plazan, bihar, martitzena.

**BAT EGIN DUTE DEIAREKIN**

Deialdia "arrakastatsua" izan daitekeela esan zuen Jose Ramon Kortabarriak. Greba egingo dute Bergarako eta Oñatiko udalek eta Mankomunitateak. JMA, GKN, Alfa-Deco, Fagor Ederlan, Lazpiurren... greba egingo dute. Kooperatibek gaur esango dute emaitza.

**INGURUMENA**

## Bidegorri sareen erabilerak gora egin du

Gipuzkoako sarean %17 hazi dira bizikleten joan-etorriak

**A.E.** > BERGARA

Gipuzkoako bidegorri sarean jarrita dauden kontagailuen arabera, gora egin zuten iaz bizikleta eta oinezkoen joan-etorriek. Hain zuzen, %17koa izan zen bizikleten igoera.

Kontagailuak Gipuzkoa osoan banatuta daude, tartean Bergarako Soraluze-Osintxu tartean. Probintzia guztian, iaz, egunez, 6.000 lagun ibili ziren batez beste, bai lanerako joan-etorrietan baita aisialdian edo paseoan ere.

**JOAN-ETORRIAK**

Guztira, 2.170.000 joan-etorri zenbatu zituzten, %24,5 bizikletaz eta beste %75,5 oinez egin zirenak. Gainera, abuztuan %35era iritsi ziren bizikleta bidaiak: urte osoko ehunekorik handiena.

Debagoienean, Bergarako tartean bakarrik dago markagailua jarrita; baina Diputazioko Ingurumen Sailekoek esan digute hurrengo kontagailua Eskoriatzan jarriko dutela. Markagailuok herrien arteko sarea neurtzen dute, ez herri barrukoa.

Arrasateko PPko zinegotzi Itziar Lamarain Goiena Telebistan egon zen joan den astean. Bizi duen egoera pertsonalaz eta politikoaz hitz egin du, besteak beste, ordezkari politikoak. Eusko Alkartasunak eta ezker abertzaleak sinatu berri duten akordioaren gainean, esaterako, berrikuntzarik ez duela esan du; horren harira, ETA "inon" ez aipatzea "izugarria" dela dio.

**Itziar Lamarain** > Arrasateko PPko zinegotzia

# "EA eta ezker abertzalearen akordioak ez dit ezer esaten; ETA ez da inon aipatzen"

**MIRIAN BITERI** > ARRASATE

**Gesto por la Paz koordinakundeak antolatuta eta *Egia, justizia eta memoria* lelopean, biktimekiko elkartasun jardunaldiak egin dituzte egunotan Bilbon, Donostian eta Gasteizen. Biolentzia sufritu duten eta sufritzen dutenei eman diete bertan hitza eta Itziar Lamarain alderdi popularrak Arrasaten duen zinegotziak ere esku hartu du horietan. Goiatz Arana kazetariak *Goiena Magazinea*-n elkarrizketatu du oraingo astean eta han esandakoak ekarri ditugu paperera.**

***Egia, justizia eta memoria* lelopean egin dituzue jardunaldiak; zer esaten dizute hitz horiek?**

Hirurak oso hitz inportanteak direla iruditzen zait. Lehenik, egia osoa jakin behar dugulako, ez bakarrik alde batekoa; bigarrenik, herri honek jasan duenaren ondotik, justizia inportantea delako eta bete egin behar delako. Memoria ere garrantzitsua da, batzuetan gauzetaz ahaztu egiten garelako eta gogoan izan behar ditugulako; esaten ei da atzera begiratzea ez dela ona, baina, nire ustez, ona da hobera joateko.

**Biolentzia sufritu dutenei eta sufritzen dutenei eman zaie hitza jardunaldiotan. Entzun diren testigantzetatik zerk hunkitu zaitu gehien?**

Ez dut jardunaldi guztietan egoterik izan, baina horietako batzuetan esandakoa entzuteko aukera izan dut. Tristea da biolentziagatik erailda izan diren pertsona maiteak galdu dituztenei entzutea. 22 urte zituela, atentatu batean ondorioz bi lankide eta hanka galdu zuen guardia zibilarekin egon nintzen. Horrelako egoerak oso tristeak dira; baita pentsatzea ere ia 50 urte daramatzagula horrela. Hortaz, geratzen zaizun sentsazioa tristea da.

**Zuk ere esku-hartze zuzena izan duzu jardunaldiotan, pertsekuzio-biolentziaren biktima moduan. Zein da zure egoera?**

Hor egon ahal izateagatik zorionekoa nintzela aipatu nuen han, kontatzeko aukera dudalako, beste batzuek egin ezin dutena. Esan beharra daukat egunkarian pertsekuzio-biolentziaren biktima zer den irakurri nuenean, bihotza ukabil batean sartuta eduki nuela, kuriosoa bada ere, biktima hitza ez nuelako barneratuta, eta irakurri nuenean, izutu egin nintzen.

Nire egoera pertsonalari dagokionez, ez dut uste horren txarra denik, beste hainbat sozialistaren edo alderdikideren egoera okerragoa da. Ez naiz horren erasotuta eta jarraituta sentitu. 2003ko hauteskundeetan, Arrasaten izan nintzen lehen urtean, konturatu nintzen bizitza osoko jende ezaguna espaloiz aldatzen zela, nirekin topo egin ez zezan. Zorionez, hori aldatu egin da eta pertsona horiekin kafea hartzen dut edo kalean nirekin hitz egiteko geratzen dira egun; eta hori oso inportantea da.

**Edozein modutan ere, bizkartzainekin ibili behar duzu. Nola egiten zaio aurre egoera horri egunero-egunero?**

Hasieran, ez zara oso kontzientea, baina egunek aurrera egiten dutenean, kalera irteten zaren bakoitzean bi pertsonari deitu behar diezula eta zu irten aurretik ingurunea aztertu behar dutela jakitea gogorra da. Izugarria da zure herrira bi bizkartzainekin etortzea. Hemen, bakoitzak dauka bere pentsatzeko modua eta hori positiboa da. Baina erailtzen eta bizitzen uzten ez duen biolentzia daukagu; hori desagertu egin behar den errealitatea da.

Egungo egoerari dagokionez, ez dakit zer esan. Tregoak eta suetenak izan baditugu ere, berdinera itzultzen gara: armetara, hain justu. Arma barik edozein tokitara irits gaitezke.

**Gorrotoa dagoela diozu eta gorroto hori etxean jasotzen dela. Gorrotatua sentitzen zara?**

Ez. Gorrotatzen nauena egongo da, begirada bat baino gehiago ikusi dut-eta. Jardunaldi haietan esan nuen gorrotoa sortzea funtsezko zergatia dela bizi dugun egoera honetan. Askotan esan da ikastoletan gorroto handia sortu dela, eta gauzak ezin dira orokortu. Norabide bat edo bestea hartu duten irakasleak egongo dira; eta baita familiak ere. Nire familia, esaterako, nazionalista da eta ez da ezer gertatzen. Harro esan behar dut nire etxean inoiz ez zigutela esan gure moduan pentsatzen ez dutenak gorrotatu egin behar genituela.

**Horren harira, bakerako hezkuntza planak lagunduko du gorrotoa leuntzen? Ze berritasun ekarriko du ikasgeletara?**

Oso garrantzitsua da umeek egia osoa ezagutzea; hor ezin dugu gorrotoa sortu. Gertatu dena ez da berriro gertatu behar.

**Zer da biktimek eskatzen duzuena, gizarteak zer zor dizuela uste duzue?**

Niri askatasuna kendu didate eta hitz hori oso garrantzitsua da niretako. Nik neuk gizarteari ezin diot ezer eskatu, batzuek ahal izan dutena eta beste batzuek gutxiago egin dutela suposatzen dut. Baina ETAri armak utz ditzala eskatzen diot; guztiok hobeto biziko gara, bakoitzak nahi duena defendatuz.



Itziar Lamarain, joan den martitzenean. OIHANE ISASI

GORROTOA

**"Nire etxean inoiz ez ziguten esan gure moduan pentsatzen ez dutenak gorrotatu egin behar genituela"**

IRTENBIDEA

**"ETAk armak utz ditzala; ez dago beste biderik guztiok hauteskundeetan egon gaitezen"**

**Duela bederatzi urte hasi zineten jardunaldiok antolatzen. Zer aldatu da ordutik hona?**

Gizartea mugitzen ari da. Dagoeneko desagertu da hasieran armekin lotutako mugimenduek zuten babesa; oraindik armak kondenatzen ez dituzten taldeak daude eta hori presente izan behar dugu. Kondenatzen dutenean aurrerapauso handia emango dugu. Aurrerapausoak emate badira ere, asko geratzen da.

**Azken hilabeteotan atentaturik ez egoteak lasaitu egiten zaitu?**

Nahi ez dutelako edo ezin dutelako? Hori da nire galdera. Lasaiago bagaude ere, bizkartzainekin gaudenok ezin dugu gure segurtasuna lasaitu. Denok dakigu 2007an gertatu zena; Isaias Carrasco erail zutela. Inork ez zuen espero horrelakorik.

**Nola baloratzen duzu Eusko Alkartasunak eta ezker abertzaleak sinatu berri duten akordioa?**

Ez dit ezer esaten; izugarria da horretan ETA inon ez aipatzea. Funtsezkoa da hori. Ez batak eta ez besteak ez dute horren gainean ezer esan. EAk izena ematen du ordezkapenik gabe geratu delako; eta ezker abertzalea, antzinako Batasuna edo ANV-EAE, egoera dagoen moduan egonda, edo ETAtik bereizten da edo argi dagoena da ezin izango dela hauteskundeetan egon.

**Zein da alderdi popularraren ekarpena bakerako bidean?**

Beti esaten dugu berdina: ETAk armak utz ditzala. Ez dago beste irtenbiderik guztiok hauteskundeetan egon gaitezen. ETA desagertu egin behar da.

**Espainiako Kongresuan Terrorismoaren Biktimen Lege Integral berria adostetik "pauso batera" daude PSOE eta PP, berri agentziek zabaldu dutenez. Zertan ezberdinduko da lege berria egun indarrean dagoenetik?**

Ezin dut askorik esan, ez dakidalako. Baina, nire taldea ezagututa, uste dut norabide bera jarraituko duela: biktimei sostengua ematea eta, bereziki, horrela bizi izaten jarraitzea ezinezkoa dela berrestea. Besterik ez.




# Gipuzkoa, bizkor



## Donostiako Bigarren Ingurabidea

Gipuzkoako errepideak goitik behera aldatuko dituen Donostiako saihesbide "berria".

Azken belaunaldiko 17 kilometroko autobide honi esker, 40.000 ibilgailuk baino gehiagok ez dute Donostiako saihesbidea igaro beharrik izango, batez ere ibilgailu astunak eta Gipuzkoa zeharkatzen dutenak.

300 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa eta trafikoa kudeatzeko teknologia modernoenak zure erosotasuna eta segurtasuna handitzeko.

GIPUZKOA
zurekin, aurrera

## kale inkesta

# Hegoafrikan ospatzen ari den Munduko Futbol Txapelketa jarraitzen duzu? Zein iritzi duzu?



**Eukene Gracia**
Langilea
Bergara

Ez zait batere interesatzen; gainera, gauzak dauden moduan lotsagarria iruditzen zait jende guztia milioiak eta milioiak irabazten ari diren jokalari horiei begira egotea egun guztian. Ez dut ulertzen.



**Iñaki Mujika**
Langilea
Bergara

Ez dut jarraitzen; egunkarian irakurtzen dudana dakit, baina, telebistaz ez dut jarraitzen. Amorrua ematen didana da gauzak dauden moduan horrelako dirutza gastatzea futbol txapelketa batean.



**Nagore Iñurrategi**
Langilea
Bergara

Jarraitu nahi ez arren, ez dut beste aukerarik. Toki guztietan dago: egunkarian, irratian, telebistan, lagun artean... Gainera, fartsa huitsa da, Hegoafrikan egiten dihardute, baina, dena hemendik mugitzen da.



**Jose Angel Moraza**
Ikaslea
Bergara

Ez naiz etxean geratzen partiduak ikusten, baina apur bat jarraitzen dut; azkenean toki guztietan dago. Telebistan egun guztian dabiltza mundiala gora eta behera, Sara Carbonero gora eta behera.

## irakurlearen txokoa

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

LEINTZ-GATZAGA

**> Semaforoa errespetatu barik, aurrera**

Irakule batek kontatu du Leintz-Gatzagako semaforoa askok ez dutela errespetatzen. "Gorri ipini dela ikusi arren, aurrera jarraitzen dute, eta askotan gainerako gidariei egiten digute oztopo", adierazi du. "Badakit semaforo hori askori ez zaiela gustatzen, baina ipini baldin badute errespetatu egin beharko dugu", dio.

ARETXABALETA

**> San Juanetako ohitura zaharrak berreskuratu direla eta**

San Juan bezperako gauean Aretxabaletako etxe atari guztietan garo sorta bat jarri zuten bi herritarren artean. Aretxabaletar batek idatzi digu usadio zahar hau berreskuratu dela eta pozez. "Gure arbasoek orain dela ez urte asko arte ohitura hau mantentzen zuten, baina galdu egin zen". Orain San Juan egunean zehar herri guztia garoz josita egoten da, eta egun berezi honi beste kutsu bat ematen diola azpimarratzen du.

BERGARA

**> Jostailu truke azoka ekimenarekin gustura**

Guraso batek idatzi digu Bergaran antolatu duten Jostailu Truke azoka dela eta. Asteburu honetan zehar izan da ekimen honen lehendabiziko edizioa, eta bere seme-alabek jostailu berriak eskuratzeko aukerarengatik gustura agertu da. "Etxean baztertuta zeuzkaten jostailuak beste haur batzuk aprobetxatu ahal izango dituzte, eta orain gure haurrek berriak dauzkate".

## usteak uste

**Arritxu Barruso**

# Elkorori berriro ere eskerrak

Jakin banekien Jose Luis Elkorok Euskal Herriaren eta Bergarako herriaren alde izugarrizko lana egin duela, eta gauza asko zor dizkiogula. Domeka honetan baina, Bergarako alkate ohiaren beste alderdi bat ezagutu dut. Oso musikazalea omen da, eta zor horien guztien artean, Bergaran 78 urtetan jotzeari utzi ez dion musika banda bat edukitzea ere zor diogu. Ibarrean udal banda guztiak desagertu zirenean, esfortzu berezia egin zuen-eta Bergarako Udal Banda bizirik mantentzeko.

Jakin dut, kartzelatik bada ere, Elkorok jarraitzen dituela bere herriko bandaren kontzertuak; iristen zaizkiola programak. Domekakoa jasotzen duenean, beste behin ere, bergararren esker ona eta babesa jasoko du. Dena dela, Jose Luis Elkorok hurrengo kontzertu Espoloiko eserlekuetan jarrita ikusi ahal izatea litzateke nire benetako nahia.

## zorroztailea



**Joxemari Muxika**

# Ekonomia demokratizatu

"Kapital metaketa izugarria izan da azken 15 urteotan eta gutxi batzuen eskuetan egon den kapital horrek egin du nahi izan duena: espekulazio hutsa. Egoera horrek eroan gaitu krisi honetara..."

"Kapitalak gura du langileok pagatzea faktura, eta ez gaude onartzeko prest"

Goienkaria > 2010-06-25


"Kapitalak gura du langileok pagatzea faktura, eta ez gaude onartzeko prest"

Kapitalistek aspalditik kontrolpean daukate boterea eta agintari politikoak euren aginduetara dabiltza. Diotenez produzitzen dugunaren gainetik bizi omen gara eta soldatak eta pentsioak apaldu egin behar omen dira.

Kapitalistekin goxo jokatzen dute agintari politikoek, zergak igoz gero haiek dirua beste herrialde batera eramango duten beldurrez. Izan ere badira paradisu fiskala deitutako hainbat lurralde, kapitalistek dirua pilatzeko baliatzen dituztenak. Kapitalistek eta euren kudeatzaileek (aholkulari juridikoek, administratzaileek, komertzialek) paradisu fiskal horietako batean sortzen dute enpresa eta horrela ez dute zergarik ordaintzen: "A" herrialdean 5 euro ordainduz erosi duten produktua "B" herrialdean 15 eurotan saltzen dute, eta enpresak egoitza "C" paradisu fiskal herrialdean duenez irabazi horien zergarik ez dute inon ordaintzen.

Horrela lortutako diruarekin kapitalistek edozein ondasun erosi dezakete, akzioak, funtsak, edo beste hainbat produktu finantzario. Zergetatik ihes egiteaz gain dirua beste herrialde batera mugitzeko mehatxua erabiltzen dute gobernuei eta legebiltzarrei xantaia egiteko.

**"... jar ditzagun erabakiak pertsonen baitan eta ez kapitalaren baitan. Egin dezagun sakoneko aldaketa eta demokratizatu dezagun ekonomia"**

Lapurreta eroso antolatzen utzi zaie, euren aldeko ekonomia teoriak borobildu dituzte eta inor ez da eskua sartzen ausartzen. G20koek (munduko 20 estatu aberatsenek) paradisu fiskala kritikatu izan dute, baina denbora joan ahala ez dute ezer egiten.

Sindikatuak protestatzen ari dira gobernuak langileen aurkako neurriak hartzen ari direlako, Bilbon ekainaren 12an manifestazioa egin zen, biharko greba orokorra deitua dago, ... Euren ustez beste hainbat neurriaz gain aberastasunaren banaketa egiteko zerga sistema erabiltzea da konponbidea.

Ondasunen jabetza desorekatua dago eta berorren baitan hartzen dira erabakiak, gizadiaren %20k baliabideen %80 kontrolatzen baitu. Gizarte eredu kapitalista honetan ezerezaren balioa du gizakiak. Alda dezagun ondasunen jabetzaren banaketa eta jar ditzagun erabakiak pertsonen baitan eta ez kapitalaren baitan. Egin dezagun sakoneko aldaketa eta demokratizatu dezagun ekonomia.

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • E05 Basabe Poligonooa • 20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Asteburuko erredakzioaren arduraduna** Ubane Madera **Erredakzioa** Mireia Bikuña, Arritxu Barruso, Lander Munagorri
**Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Ibarra kalea 6 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale • **Difusioa:** 4.383 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

**Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria**

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

**Arrasate** > 14 **Bergara** > 16 **Oñati**> 18 **Aretxabaleta** > 19 **Eskoriatza** > 19
**Antzuola** > 20 **Aramaio** > 20 **Elgeta** > 20 **Leintz Gatzaga** > 20



**> ARRASATE**
Treparriscos irabazi eta gero, Iratiko tourrera doa orain Irati Olalde txirrindularia **> 15**



**> BERGARA**
Eguaztenean, San Martzial egunean, 07:30ean aterako da letania parrokia ostetik **> 17**



**> OÑATI**
330 neska-mutikok parte hartuko dute 'Oñati milakakolore' udalekuetan, uztailean **> 18**

**ARETXABALETA** > KIROLDEGI BERRIA

# Trinketa beharrean punta-puntako rokodromoa egin gura du Udalak

**IBARREKO HANDIENA**
Aretxabaletatik haratago, Debagoiena osora begira eraikiko dute rokodromoa

**BIDERAGARRITASUNA**
Ekonomikoki bideragarria bada, uztailean bertan emango zaio baiezkoa



Zimenduak jartzeko arazoak izan dituzten arren aurrera doaz kiroldegi berriko lanak. 2011ko irailean amaitzea aurreikusten du Udalak. ARRITXU BARRUSO

**ARRITXU BARRUSO** > ARETXABALETA
Debagoieneko eskalatzaileendako albiste onak datoz Aretxabaletatik. Eraikitzen diharduten kiroldegi berrian punta-puntako rokodromoa egin gura du Udal Gobernuak. "Gure ibarrean gero eta jarraitzaile gehiago ditu eskaladak eta gaur egun Debagoienean ditugun azpiegiturak txiki geratu dira. Eraiki nahi dugun rokodromoa punta-puntakoa eta erreferentea izatea nahi dugu", azaldu du Inaxio Garro alkateak.

**ZIMENDUAK JARTZEKO ARAZOAK**
Udal Gobernuaren hasierako asmoa zen kiroldegian trinketa egitea, baina zimenduak jartzeko arazoak izan dituzte eta proiektua aldatu beharra izan dute: "Zimenduak jartzeko arazoak izan ditugu eta kiroldegia aurreikusitakoa baino lau metro gorago hasi behar izan gara eraikitzen; hori horrela, trinketa eraiki behar genuen guneak hamar metroko altuera beharrean, sei metrokoa izango du, eta baxuegia da trinketa egiteko", adierazi du Garrok.

Zimenduekin izandako arazoak, gainera, kiroldegiko lanak atzeratu egin ditu. Alkateak dionez, 2011ko irailean amaituko dituzte.

**DEBAGOIENA OSORAKO**
Udal Gobernuak Debagoiena osora begira eraiki nahi du rokodromoa; horretarako, Patxi Usobiaga, Alberto Iñurrategi edo Joxean Mulas bezalako profesionalengana jo du aholku eske. Erabilera eta kudeaketa zehazteke daude, baina asmoen artean daude eskalada eskola irekitzea, teknika hobetzeko ikastaroak eskaintzea, txapelketak egitea edo eskola kirolerako erabiltzea.

**BIDERAGARRIA DEN AZTERTZEN**
Rokodromoaren aldeko apustua egin du Udal Gobernuak, eta proiektua aurrera atera ahal izateko buru-belarri ari dira lanean. Baina orain ekonomikoki bideragarrian den aztertu beharko dute. "Enpresa bati eskatu diogu aurreproiektua egiteko eta laster izango dugu berau aztertzeko aukera. Diru-iturria ere izan daiteke rokodromoa eta hori guztia kontutan izanda, ekonomikoki udalaren aukeren barruan sartzen den hala ez ikusiko dugu". Alkatearen hitzetan, uztailean bertan hartu beharko dute erabakia: "Bideragarritasun azterketak egin ostean kirol batzordea deituko dugu eta udalbatzako gainontzeko alderdiei aurkeztuko diegu proiektua".

Aretxabaletako Udal Gobernuaren proiektuak argi berdea ikusten badu, ibarreko eskalatzaileak sokak eta *katu-oinak* prestatzen hasi beharko dira.



Kanpoko zelaiarekin zer egin erabakitzeko parte-hartze prozesua ipini zuen martxan Udalak. A.B.

## Kiroldegi pareko zelaiarekin zer egin erabakitzeko hurrengo bilera uztaila amaieran edo irailean egingo dute

Kiroldegi pareko zelaiarekin zer egin erabakitzeko, Udalak herritarren parte-hartze prozesua ipini zuen martxan. Hiru saio egin dituzte, eta badirudi bi proiektu direla herritarren arreta gehien erakarri dutenak. Orain, bi proiektu horiek plano bidez irudikatzen dabil Udala eta ekonomikoki bakoitzak izango duten kostua kalkulatzen, ondoren herritarrei aurkezteko. Asmoa da hurrengo bilera uztailaren amaieran edo irailean egitea.

Proiektu biek ere proposatzen dute zelaia, berdegunea eta umeendako jolas-parkea izateaz gain, aire libreko kirol ekipamenduetarako erabiltzea (tenisa, padela, futbol 8, frontoia...). Baina, bietako batek gune umela deitzen diotena ere gehitzen du. "Gune umela deitzen diogu bere erabilera zehazteke dagoelako oraindik, ez dauka zertan bainurako izan", azaldu du Hirigintza teknikari Jose Mari Segoviak. Dena dela, etorkizunera begira bada ere, gune horretan bainua hartzeko aukera aztertzen ari da Udala: "Oso aurrera begirako aukera da, baina, uste dugu etorkizunean ibai ondotik pasatzen dela aprobetxatuz, bainurako hondartza moduko guneak egin daitezkeela; dena dela gaur egun hori pentsaezina da uraren kalitatea oso txarra delako".

**ARRASATE** > SANJUANAK

# Hasi orduko bukatu dira Sanjuanak; datorren urtera arte bapo!

## Parte-hartzearengatik "eskerrak" eman gura dizkie alkateak arrasatear eta bisitariei

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Bukatu dira Sanjuanak Arrasaten. Indartsu hasi ziren eta indartsu bukatu dira atzoko Erraldoi eta Kilikien konpartsen kontzentrazioarekin, Herriko plazan batu zen jendetza ikustea besterik ez zegoen.

Justu horixe da Ino Galparsoro alkateak nabarmendu duena aurtengo jaietatik: "Aurten ekitaldietan herritarren partehartzea zabala izan da. Errementari Dantzak, Pirritx eta Porrotxek, eta konpartsek, esaterako, jende mordoa erakarri dute. Egia da eguraldiak lagundu duela, nahiz eta batzuetan eguzkiak gogor jo. Eta egia da, baita ere, igartzen dela herritar asko kanpora joaten direla. Hala ere, nabarmenduko nuke geratu direnek jaietan izan duten parte-hartzea. Eta hori da, azken batean, jaien funtsa. Jaiak parte hartzeko antolatzen dira. Beraz, eskerrak eman gura nioke jendeari, batetik, parte hartu duelako, eta bestetik, jakin duelako egoten".

**AZTERTZEKOA**

Horrekin batera, alkateak adierazi du jaietan izan den ezusteko bakarra entzierroetako jendepilaketa izan dela. "Betiko moduan badaude gauzak hobetzeko eta beste batzuk bere horretan uzteko, eta balorazio osoa egiten dugunean aztertuko dugu puntu hori ere bai".



Monterron parkea lepo, Irrien Lagunek, betiko moduan, ehunka neska-mutiko erakarri zituzten-eta. JULIO CALLEJA



Poni gainean jarri eta zezen-plazari buelta ematen. JULIO CALLEJA



Umeak bits artean. A.TXINTXURRETA



Gorroto musika taldea txosna-gunean egin zuten kontzertuan. JULIO CALLEJA



Gaztetxeko paretak eskalatzaile gazteak erakarri zituen; argazkian Jone. JULIO CALLEJA


Senegaldarrak harro, eurek prestatutako jakiak erakusten. U.M.


Saharako tea prestatzen ibili ziren benetako adituak: sahararrak. U.M.

**OÑATI** > KULTUREN ARTEKO FESTA

# Kolore, zapore eta kultura aniztasuna barreiatu ziren Oñatiko plazan, zapatuan

## Euskadin bizi diren etorkinek bertakoekin konpartitu zituzten norbere herriko gutiziak

**U.M.** > OÑATI
Arrozarekin egindako Senegalgo plater gozoak, Paraguaiko milanesak, Brasilgo kaipiriñak, Saharako tea… Halako jaki eta edariak izan zituzten aukeran zapatuan Oñatiko Foru plazako postuetan ibili zirenek. Baita kamiseta, lepoko, hennarekin egindako marrazki, margotutako mozorroak… eta bestelako osagarriak erosteko, egiteko eta probatzeko aukera ere.

Horiek guztiak lurralde horietako jatorrizko bizilagunen eskuek landutakoak ziren. Horixe zen-eta, Errekalde herri eskolak antolatutako kultura aniztasunaren festaren helburuetako bat: munduko kultura ezberdinak ezagutzera eman, ulertu eta kulturen arteko hartu-emanak bultzatzeko bidean urrats bat gehiago egitea.

Eta lortu ere lortu zutela esan daiteke. Askorendako berriak eta ezezagunak ziren produktuak elkartrukatu zituzten-eta. Oñatiar batzuek ondo asko aprobetxatu zuten aukera, eta saltokiz saltoki joanda, bakoitzetik jaki bat edo bi hartu eta afari gozo eta anitza egin zuten.

**LANEAN BAINA GUSTURA**
Baina parte-hartzaileak ere gustura asko ibili ziren. Hala adierazten zuten, adibidez, senegaldar emakume beltz-beltzen erritmoek, lanean ibili arren, geldi egon ezin zirenak; edo Brasilgo saltokian kaipiriñak egin eta egin ibili ziren emakumeen umoreak.

**ARAMAIO** > OLETAKO OBENA BASERRIAREN ALDEKO JAIA

# Elkartasun uholdea, Obenako bizilagunei laguntzeko

## Auzokideen baserria atzera ere jasotzen laguntzeko dirua batu zuten oletarrek atzoko (domeka) jaialdian, taberna, apustu eta bestelakoen bitartez


Segalariak eta bestelako kirolariak, Oletan. GOIENKARIA


Herri kirolek hartu zuten laguntza-jaialdiko zati handia. GOIENKARIA

**UBANE MADERA** > ARAMAIO
Bi hilabeteko saminaren ostean, behingoz, irribarre egiteko arrazoiak izan dituzte kiskalitako Obena baserriko bizilagunek. Izan ere, 200 bat lagunek bat egin zuten atzo, domeka, Obena baserriaren atzeko aldeko zelaian antolatu zuten laguntza jaialdian: Oletakoak bertakoak, ondoko otxandioarrak, aramaioarrak, legutioarrak… barruko poza pizteko moduko elkartasun keinua jaso zuten guzti horiengandik Obenako bizilagunek.

**ELKARTASUN UHOLDEA**
Eta ez bakarrik auzotarrengandik. Herri kiroletan jardun zutenek musu-truk egin zituzten "ikuskizun benetan politak". Bestalde, "giroa animoso ipintzeko" segalarien jardunarekin apustuak egin eta irabazleak "apustuaren erdia etxearendako" eman duela ere kontatu du Jon Iñaki Isazelaia Oletako Kontzejuko idazkariak. Eta baita ere eguerdian eta arratsaldean ipini zuten tabernako kutxa ondo puzten lagundu zutela jaian ibili ziren partaide gehienek.

**ESKERRAK GUZTIEI**
Horregatik guztiarengatik, Oletako Kontzejuko ordezkariak eskerrak eman gura dizkie "batera edo bestera lagundu duten guztiei, baita musu-truk etorri diren kirolariei ere".


UBANE MADERA

**ANTZUOLA** > JAIAK

# Jai jendetsuak, Kalebarrengoak

Herriko jai nagusien ostean, jendetsuenak izaten dira Kalebarrengoak, eta aurten ere halaxe izan da: zapatu eguerdian ume eta gurasoek hartu zituzten kiosko inguruak ginkana, plastilina tailer eta bestelakoen aitzakian. "Antzuolako ume denak" izan zirela diote Jonek eta Ainhoak, jaien antolatzaileetako bik. Iluntze-gauean, berriz, nagusiagoen txanda izan zen, sagar-dantza, herri-afari eta bestelakoen bidetik. Zapatukoa izan zen egun handia, baina barikuan eta atzo ere izan zuten zeregina.

**ZERBITZUAK**> HERRIKO URAK

# Ur-sarea egunean 24 orduan kontrolatuta

GSM (telefonia) sistema erabiltzen du Udalak ur-sare eta iturburuak zaintzeko; horri esker, besteak beste, ur-ihesak detekta ditzake



Benerasko (Udalatxen magalean) iturburuaren ura erabili du Udalak kiroldegiko kanpoko igerilekuak elikatzeko. GOIENKARIA

**UBANE MADERA**> ARRASATE

Arrasateko kiroldegiko kanpoko igerilekuak herriko iturburu naturaletako urarekin bete dituzte aurten lehenengo aldiz.

Bestela esanda, orain arte ur sare nagusitik (Urkulutik) hartzen zituzten 2.500 metro kubiko ur aurreztu, eta herriko iturburuetatik eskuratu ditu Udalak. Eta ez hori bakarrik, etorkizunera begira, gura du kiroldegiak erabiltzen duen ur kopuru osoaren (35.000 m³ urtero) %50 herriko iturburu naturaletatik eskuratutakoa izatea.

**UR-SARE ALTERNATIBOA**

Hori posible egiteko, baina, sukaldeko lan handia egin du Arrasateko Udalak urteotan.

Batetik, herri barruko ur sare alternatiboa eraikitzen dihardu. Justu ekainean lortu du lotzea Santa Barbarako ur-biltegiko sarea Musakolarekin. Eta horri esker da posible gaur egun Benerastik datorren iturburuaren urak kiroldegira bideratzea.

Horri esker, baita ere, iturburuko ura erabiltzen dute herriko lorategiak ureztatu eta kaleak garbitzeko.

Kopurutan, "herriko kontsumoaren %5 eta %8 artean iturburuetako urarekin" asetzen du Udalak; hala jakinarazi du Alberto Loitik, Zerbitzuetako teknikariak.

**TELEFONIAREKIN KONTROLA**

Bestetik, eraberritzearen bidetik ere jo du Arrasateko Udalak ur-sare alternatibo eraginkorra lortzeko: iturburuak kontrolatzeko GSM sistema (Global System for Mobile Communications) erabiltzen du. Tele-zaintza sistema mota da hori, hau da, urruneko kontrola ahalbidetzen duena, sakelako telefonoa erabilita.

Horri esker, udal langileek iturburuon gaineko datuak eskura ditzakete. Hain zuzen, jakin dezakete iturburuaren ur emaria, uraren kontsumoa, uraren gardentasun maila eta besteak beste, plubiometria, hau da, euriuren ekarpena.

Horrek datuok guztiok ordenagailuetan jasotzen dituzte, Internetez, egunean behin. Horrez gainera, eskatuz gero, sakelako telefonoan ere jaso ditzakete datuok, mezu bidez.

**UR-IHESAK KONTROLATZEKO**

Baina ez hori bakarrik. Kontrol sistema horri esker, ur-sareko ihesak ere detekta ditzakete.

Hain justu, ur-sarearen kontsumoaren datuak eskuratzen dituztenez, gauean, kontsumoa jaisten denean, jakin dezakete sare horrek ihesak dituen edo ez. Eta sare nagusiaz aparte, bigarren mailakoak zaintzeko ere balio du.

Alberto Loiti udal teknikariak emandako informazioaren arabera, ur-ihesi gehienak konpondu egin dituzte azken urteotan.

Sistema berriari esker, baina, atzemateko zailagoak diren bigarren mailako ur-sareetako ihesak detekta ditzakete orain. Eta hain zuzen, detektatu dute ihesak daudela sare nagusiaren eta etxeetarako banatze-sarearen arteko zatietan. Adibide bat: Arrasateko auzo batean segundoko 0,4 litroko ihesa detektatu du Udalak. Bestela esanda, hori da lau txorrota zabalik egongo balira moduan. Bada, ihes horiek eteten ahalegindu gura du Udalak etorkizunean.

BIGARREN MAILAKO UR-SAREA

## Ur-sare alternatiboa, ezustekoetarako

Ur-sare nagusiaz gainera, Arrasateko Udala apurka-apurka badabil eraikitzen ur-sare alternatiboa, herriko iturburuetako urekin funtzionatzen duena. Adibidez, sikute garaian ur-eteteak gutxitzeko erabil daiteke sare hori.

Santa Barbaratik Musakolarainoko sare alternatiboa ekainean bukatu dute. Herriaren iparraldeari dagokionez, Erguin eta San Andres auzoetara ere iristen da. Eta horrez gain, urbanizazio berrien (Gelma, Uribarri...) obrak aprobetxatu ditu Udalak urteotan guneotan ur-sare alternatiboa eraikitzeko.

Zerbitzu Sailetik emandako xehetasunen arabera, Arrasate osoa zeharkatzeko bakarrik falta da Uribetik Markuleteko biribilgunerainoko ur-sare zatia. Hori egiteko proiektua prestatzen dabiltza. Behin proiektua eginda, inguruko obra berriak aprobetxatuko dituzte hor ere ur-sare alternatiboa sortzeko.

## Ur-kontsumoa hainbat gunetan

| | |
|---|---|
| **Erguin** | 858 m³ |
| **Iturripe** | 748 m³ |
| **Musakola** | 678 m³ |
| **Alde zaharra** | 592 m³ |
| **Herriko orokorra** | 4.620 m³ |

ITURRIA: ARRASATEKO UDALA EKAINAREN 14KO DATUAK

**JENDARTEA** > TOURREKO PORRA

# Abian da Euskal Herriko eta Estatuko porrarik antzinakoena: egin apustu!

Monte eta Estrella tabernetan eskura daitezke izena emateko orriak; aurten, gainera, parte-hartzaile kopuruaren marka hautsi gura dute

**U.M.** > ARRASATE

Zapatuan, uztailaren 3an Frantziako Tourra abiarazteaz bat jarriko dute martxan gureko porrarik ezagunena eta arrakastatsuena: Xantini lagunartearena. Edo bestela esanda, Monte eta Estrella tabernek 18 urtetik hona antolatzen dutena.

Izenemate orriak har daitezke dagoeneko, "baina gomendioa da kiniela ez entregatzea zapatu gauera arte edo domekara arte. Batetik, ordura arte ez delako jakingo txirrindularien zerrenda, eta bestetik, zapatuko etapa (puntuagarria ez dena) ikustea komeni delako, korredoreren batek istripua izan badu jakiteko…" azaldu du Juan Carlos Davilak, Monte tabernako ugazabak eta porraren antolatzaileetako batek.

**GIROAN 100 GEHIAGO**

Kiniela edo zerrenda horretan 15 txirrindulariren izenak aukeratu behar dira, eta 30 euro pagatu porran parte hartzeko.

Parte-hartzaile kopuruari dagokionez, orain arteko marka gainditu egin gura dute: "Iaz ia 1.100 parte-hartzailek eman zuen izena. Eta aurtengo Giroko porran ia 100 parte-hartzaile gehiago izan ditugu; ea bada Tourrean lortzen dugun marka haustea. Kontuan hartuta sari gozo eta handienak dituela…", dio Davilak.

**13.000 EURO**

Eta izan ere hala da. "Lehenengoarendako saria da batutako diruaren %40. Iazko datuen arabera, 13.000 euro eskuratuko lituzke irabazleak", gogora ekarri du Davilak.

Gainera, ahalegindu behar dira sari banaketa egitera Iban Velasko Euskaltel-Euskadiko arrasatear txirrindularia ekartzen: "Ea posible duen Tourra bukatu ostean Montera etorri eta porrako sariak ematea. Bestetan ere etorri izan dira beste batzuk: Marino Lejarreta…".

**WEB ORRIA, JARRAIPENERAKO**

Xantiniren porraren gaineko xehetasunak eta Tourraren beraren jarraipena lagunartearen web orriaren bitartez egin daiteke: *amasge.com/xantini*: "Hor jarrai daitezke etapak, sailkapenak eta norbere taldearen egoera. Eta bestela, Monte eta Estrella tabernetara etorrita ere egin daiteke hori".

**ARRASATEAR EZAGUNA**

Esandako moduan, Xantini izena dauka Arrasateko porra horrek. Arrasatear baten izena hartu du, justu. "*Xantini* bera hasi zen porrarekin. Realekoa ere bazen, eta Arrasaten oso ezaguna. Bere emazteari baimena eskatu genion, eta halaxe ipini genion izena gure porrari", kontatu du Davilak.

> LEHIAKETA

### Azkeneko eguna Ibai Arteren argazki lehiaketarako

Gaur, astelehena, da Ibai Arte elkarteak antolatutako argazki-lehiaketan parte hartzeko azkeneko eguna. Nafarroa etorbideko 17. zenbakira eraman behar dira, partaide bakoitzeko, asko jota hiru argazki.

Irabazleen artean 1.000 euro partituko ditu Ibai Artek: 500 lehenengoari, 300 bigarrenari eta 200 hirugarrenari. Beti ere, Ibai Arteko saltokietan gastatzeko izango da diru hori.

Horrez gainera, 100 euroko hiru sari zozkatuko dituzte (horiek ere erosketetarako) argazki onenak aukeratzeko bozketan parte hartzen dutenen artean. Botoa eman behar da honako helbidean: *www.ibaiarte.com*.

**Irati Olalde** > Txirrindularitza zalea

# "Emakumeak animatu gura ditut bereziki Treparriscos edo antzeko probetan parte hartzera"

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

**Treparriscos (Huesca) herri lasterketako emakumerik azkarrena izan zen Irati Olalde (Arrasate, 1981). Lehena izan da Treparriscos eta laster etorriko dira Iratiko tourra –uztailaren 3an eta 4an–, La Miguel Indurain –uztailaren 25ean– eta Larrau-Larrau– irailaren 4an. Pozik dago garaipenaz; ez zuen espero. Irteera bat egitera joan aurretik izan ginen harekin berbetan.**

**Hasteko, zorionak. Espero al zenuen?**

Egia esan ez. Ez da lehen aldia Treparriscos egiten dudala baina ni halako lasterketetara gozatzera joaten naiz. Banuen aurrekoetan baino denbora hobea egiteko asmoa baina hori ez zen nire helburu nagusia.

**Iazko marka hobetu al zenuen?**

Uste dut baietz, bi ordu eta 40 minutu behar izan nituen proba egiteko. Hala ere, ibilbidean aldaketak egin dituzte, uste dut kilometroren bat edo beste kendu ziotela. Asko gozatu nuen, eta aurreko bi aldietan baino gutxiago sufritu. Edozelan ere, ez naiz denboraz larregi arduratzen.

**"Aurreko edizioetako denbora hobetzeko asmoa nuen baina hori ez zen helburu nagusia"**

**"Talde polita egin genuen eta oso erritmo onean egin genuen ibilbidea"**

**"Bizikletan ibiltzeko ohitura duen edonork egin ditzake halako lasterketak"**

Bestalde, ni ez nago taldean ibiltzera ohituta, eta halako probek horretarako aukera ematen dute. Taldean bizkorrago joaten da, erreleboak direla-eta. Lasterketan talde polita egin genuen eta erritmo onean joan ginen mendian gora, baina bereziki mendian behera.

**Lasterketaren zailtasunari eguraldia gehitu zitzaion, ezta?**

Egia da ez zuela eguraldi ona egin baina *Quebranta*-koekin alderatuta, zortea izan genuen. Igoerako azken kilometroetan haizea, hotza eta euria izan genituen, eta beheranzko lehen kilometroetan nahiko motel joan ginen, arriskua zela-eta. Baina eguraldia baretu zenean eta ibilbidea ezagutzen genuenez, erritmo ona hartu genuen berriro.

**Halako probetara joateko asko entrenatu behar al da?**

Lasterketen antolatzaileek aurrez prestatuta joatea aholkatzen dute, proba nahiko ondo egin eta larregi sufritu barik amaitzeko. Baina bizikletan ibiltzeko ohitura duen edonork egin dezake. Eguraldi txarrarekin etxean geratzen den horietakoa naiz ni neu ere; bi hilabete lehenago hasten naiz bizikleta hartzen. Ez da beste munduko zerbait, beraz. Gainera, gero eta emakume gehiago ikusten da herri lasterketa horietan. Hala, emakumeak bereziki animatu gura ditut Treparriscos-en proba baten parte har dezaten. Ez Treparriscos bakarrik, beste hainbat lasterketa ere badaude.



Irati Olalde bizikletan irteeratxoa egitera zihoala harrapatu genuen, Garaia gunearen ondoan. JOKIN BEREZIARTUA

## txaloak eta txistuak



GOIENKARIA

## "Horren zaila da obrak utzi aurretik zaborra jasotzea?"

Ferrerias kaleko bizilagun batek kexa azaldu du Ferreriasko plaza "edozein modutan" utzi dutelako: "Lotsagarria da bi astean geldi egonda, nola ez diren gauza izan gutxienez hondakinak kendu eta jaietarako ingurua zertxobait txukuntzeko. Ikusten denez, obra horren arduradunen artean herriaren itxura ez da lehentasuna".

**OSPAKIZUNAK** > ERROZIOA

## 20 urte beteko ditu aurten herriko andaluziarrendako festarako egun bereziak

Goizetik iluntzera arteko egitaraua antolatu dute: erlijioa, musika, kantua eta dantza izango dira nagusi

**J.B.** > ARRASATE

Al-Andalus elkarteak moduan, 20 urte beteko ditu aurten Errozioak Arrasaten. Herrian bizi diren andaluziarrendako oso egun berezia da, eta urtez urte gero eta parte-hartze altuagoa du. Uztaileko lehen domekan ospatzen dute Errozioa; aurten, beraz, uztailaren 4an izango da.

**16 ETXE EGONGO DIRA**

Goiz zein arratsaldez egongo da zer egin: 09:00etan gonbidatutako elkarteei egingo diete harrera eta 19:30ak arte ibiliko dira ospakizunetan. Erlijioa, musika, kantua eta dantza izango dira protagonista. 10:30ean Errozioko meza egingo dute Santa Teresa elizan eta gero eramango dute Errozioko Ama Birjina Eroski ondoko Arruena parkera.

Arruenan egingo dituzte ospakizunak; aurten Euskal Herriko beste herri batzuetako 16 elkartek eman dute izena oraingoz. Egun osoan Andaluziako produktuak dastatzeko aukera ere egongo da, eta antolatzaileek jantzi tradizionala eramateko deia egin dute.

> IKASTAROA

### Defentsa pertsonala landuko dute, gizon eta emakumeendako

Jiu jitsu elkarteak defentsa pertsonala lantzeko ikastaroa antolatu du. Gizon zein emakumeei zuzenduta dago. Musakolako kiroldegian izango dira eskolak, uztail osoan. Hasteko, eguazten eta egubakoitzetan elkartuko dira, 18:30etik 20:00etara. Informazio gehiago: 600 371 896 (Julio).

> GAZTE BULEGOA

### Bitxigintza eta udako sukaldaritza ikastaroak uztailean

Gazte bulegoaren eskutik bitxigintza eta sukaldaritza ikasteko aukera egongo da. Bitxigintza: martitzenetan–18:30-20:30– Monterronen, Dunixe Royoren eskutik. Udako sukaldaritza: eguenetan, 18:30-20:30, Lanbide Hastapeneko sukaldean, Meritxell Estanyren eskutik. Matrikularen prezioa: 20 euro.

**UDALA** > ZERBITZUAK

# Aurten ere liburutegi zerbitzua jarriko dute Agorrosingo kanpoko igerilekuan

Uztailaren 5ean hasi eta abuztuaren 27ra arte egongo da zabalik

Iaz bezala, txirristaren ondoan jarriko dute eta zerbitzua emango du arratsaldez



Lagun koadrila igerilekuko postuan liburuak begiratzen. GOIENKARIA

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Udal Liburutegiak zerbitzua emango du aurten ere Agorrosingo kanpoko igerilekuan. Iaz bezala, txirristaren ondoan, sarreratik gertu postua jarriko dute: "Leku hori aukeratu dugu herritarrek ezinbestean pasatu behar dutelako handik igerileku-gunera sartzeko. Eta modu horretan guztiek ikusten gaituzte", dio Mila Agirrezabalek, Udal Liburutegiko arduradunak.

Uztailaren 5ean hasi eta abuztuaren 27ra arte egongo da postua kanpoko igerilekuan; astelehenetik egubakoitzera, jende gehien batzen den ordutegian, 15:00-18:00.

Pertsona bat egingo da zerbitzuaren kargu eta, liburutegi nagusian moduan, liburuak, ipuinak... maileguan hartu ahal izango dira, eta baita kontsultak egin ere.

**LIBURUTEGI NAGUSIA**

Liburutegi nagusiari dagokionez, uda sasoi ia osoan egongo da zabalik. Uztailaren 5etik hil bukaerara arte, 08:30-13:30 eta 18:30-20:30 ordutegia izango du. Abuztuaren 2tik 6ra eta 23tik 27ra, berriz, honako ordutegia izango du: 08:30-13:30; eta irail hasieran ohiko ordutegiari ekingo dio berriz: 08:30-20:30 ordutegiari, hain zuzen ere.

**KOMERTZIOA**

# Azoka txikia egingo dute dendariek asteburuan

Uztailaren 2an eta 3an egingo dute Bedelkarko dendariek

**M.B.** > BERGARA

Dagoeneko ohitura bilakatu da denboraldiko azoka txiki bat egitea Bedelkarko dendariek. Datorren aste bukaeran egingo dute, uztailaren 2an eta 3an, eta, ohi bezala, beherapen handiak egingo dituzte.

Dendariek kalean, denden aurreko aldean jarriko dute saltzeko dutena. Herri-gunetik kanpo dauden denden kasuan, Irala kalean jarriko dituzte postuak. Gainera, haimak jarriko dituzte, eguraldi txarra eginez gero babesa izateko.

Horrez guztiaz gain, Bedelkarrek gogora ekarri nahi izan du erosketak Bedelkar txartelarekin egiteagatik %5eko deskontuak egiten dituztela elkarteko dendetan. Txartela komertzioetan eska daiteke.



GOIENKARIA

# Beste 41 lagunek egin dute ikastaroa Kutxazabalekin

Kutxazabalek antolatzen dituen ikastaroetan jende ugarik hartu du parte. Geriatria ikastaroan 26 ikasle egon dira eta 15 psikiatria ikastaroan, presentziazko eta erdi-presentziazko modalitateetan. Ikastarook izandako arrakasta ikusita, datorren ikasturterako ikastaro berak antolatzen dihardute Kutxazabaleko arduradunek. Ondoko irudian geriatria ikastaroa egin duen ikasle taldea ikus daiteke Seminarioko arkupeetan.

## oharrak

IRTEERAK

**> Elkororen aldeko bizikleta martxa deitu dute**

Jose Luis Elkoro Libre! plataformak bizikleta martxa erraldoia antolatu du uztailaren 2rako. 18:45ean abiatuko da, San Martin plazatik, eta herritarrei dei egiten diete parte hartzera.

DEIALDIA

**> Hurrengo odol ateratzea hilaren 30ean izango da**

Eguaztenean, ekainaren 30ean, izango da hurrengo odol ateratzea, eta ez gaur, hilak 28, GOIENKARIAn iragarri genuen moduan. Ohi bezala, Seminarioan duten egoitzan egingo dute.

ERROMESALDIA

**> Arantzazuko erromesaldirako izenematea zabaldu dute**

Uztailaren 4an izango da, eta autobusa abiatuko da 09:30ean, geltokitik. Izenematea da 40 euro eta txartelak eskura daitezke Zatoia jantzi dendan. 12:00etako meza nagusiaren ondoren Hotel Arantzazun egingo dute bazkaria. Bestalde, interesa dutenek aukera izango dute komentuko klaustroan dagoen erakusketa ikusteko. Bergarara bueltatzerakoan, nahi duenak aukera izango du Loiolara joateko.

EKINTZAK

**> Gazteendako uztailerako irteerak antolatu ditu Udalak**

Uztailaren 7an Arcachongo aquaparkera irteera antolatu dute DBHko lehen mailatik laugarren mailara artekoendako. Prezioa da 18 euro eta izenematea da ekainaren 30era arte. Uztailaren 9an eta 10ean kanpaldia egingo dute DBHko 3. eta 4. mailetakoek Gorlan. Izenematea da uztailaren 1era arte eta prezioa, 12 euro. Uztailaren 14an, berriz, Bidarraira *rafting* egitera joateko aukera izango dute DBHko lehen mailatik laugarrenera artekoek. Prezioa da 20 euro eta izenematea da uztailaren 1etik 7ra. Uztailaren 16an eta 17an beste kanpaldi bat egingo dute Gorlan, DBHko lehen eta bigarren mailetakoendako. Prezioa da 12 euro eta izenematea uztailaren 1etik 8ra.

ZERGAK

**> Ondasun higiezinen gaineko zerga ordaintzeko azken egunak**

Borondatezko epea ekainaren 30era arte egongo da zabalik. Egun horretatik aurrera errekarguaz kobratuko da.



Iazko letaniaren unea. GOIENKARIA

**JAIAK** > SANMARTZIALAK

# Eguaztenean 07:30ean irtengo da letania San Martzialera

Santa Marina parrokia ostetik abiatuko da; ermitan meza entzun eta gero, txokolatea banatuko dute San Joxepeko erretiratuek

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA
Ekainaren 30ean, eguaztena, San Martzial eguna da, eta, urteroko ohiturari jarraituz, San Martzialera igoera deitu dute, letania errezatuz. 07:30ean abiatuko da Santa Marina parrokia ostetik eta hara iritsitakoan, meza egongo da ermitan.

Meza bukatu eta gero, txokolatea banatuko dute bertaratutakoen artean San Joxepe erretiratuen elkartekoek, urtero moduan.

**ASTE BUKAERAN EKITALDI ASKO**
San Martzial jaien barruan ekitaldi ugari egongo dira. Egubakoitzean, hilaren 2an, hasi eta hilaren 4ra arte, domeka, askotariko ekitaldiak egongo dira.

Egubakoitzean, Bergarako Orkestra Sinfonikoak kontzertua egingo du, 20:00etan, San Pedro parrokian. Sei obrako kontzertua egingo dute Alfredo Gz. Chirlaqueren zuzendaritzapean. Besteak beste, joko dituzte: Benito Lertxundiren *Bizkaia maite*, Bizeten *The Pearl Fisher*, eta Mozarten *Eine Kleine Nachtmusik*.

Zapatuan, bonba japoniarrak egongo dira 18:00etan, San Martin plazan, eta hori bukatu eta gero buruhandi eta erraldoiek kalejira egingo dute, Elgoibarko dutzainariek lagunduta. Herriko kaleetan ibiliko dira eta San Martin plazan dantza egingo dute.

Egun handia domeka izango da. 10:00etan izango da igoera gurdiarekin. 11:00etan meza nagusia egongo da ermitan eta 12:00etan, dantza saioa. Saio hori bukatu eta gero ohiko aurreskua egingo dute.

Bazkalaurreari amaiera emateko Juan Mari Narbaitza eta Jose Luis Gorrotxategi bertsolariek emanaldia egingo dute eta kantinaren inguruan egiten den abesti herrikoien emanaldiaren ostean bukatu egingo dira ekitaldiak bazkalostera arte.

Hori horrela, 16:00etan ume eta gaztetxoendako jolasak eta herri kirolak egongo dira. 17:30ean irrintzi txapelketa egongo da eta 18:00etan, nagusiendako herri kirolak.

Herri kirolak bukatu eta gero, Txinparta taldearen eskutik erromeria egongo da eta 21:00etan jaitsiera.

**HEZKUNTZA** > JARDUNALDIAK

# FEM simulazio softwareen erabileraren gaineko jardunaldia antolatu dute

Miguel Altuna institutuak antolatu du eta uztailaren 6an izango da

**M.B.** > BERGARA
Miguel Altuna institutuak burubelarri jardun du azkeneko bi urteotan Maiatz Simulform Europako proiektuan. Proiektu hori bideratuta dago hotzeko estanpazioko diseinurako FEM simulazio softwareen erabilerara.

Horrekin guztiarekin, proiektu horren emaitzak aurkezteko jardunaldi teknikoak antolatu ditu Miguel Altuna institutuak eta jardunaldiotan egongo dira proiektuko partaide izan diren Europako unibertsitate eta zentro teknologikoetako adituak.

Jardunaldiak osatzeko hotzeko estanpazioko diseinuan eman diren berrikuntzak azalduko dituzte gaur egun egiten diren piezen konplexutasunari erreparatu eta estanpazio makinen berrikuntzek ahalbidetzen dituzten operazioak azalduz. Hori guztia hitzaldi baten bidez egingo dute.

Jardunaldietarako izenematea zabalik dago 943 76 38 40 zenbakian edo *maiatz@imaltuna.com* helbidean. Aldibereko itzulpen zerbitzua egongo da.

**UDALA** > ZERBITZUAK

# Abuztuan itxita egongo da hiru astez Gazte Informazio Gunea

**M.B.** > BERGARA
Gazte Informazio Gunea udako ordutegiarekin hasiko da uztailaren 1ean. Uztail eta abuztuan aldatuko du ordutegia. Hain justu ere, honako ordutegia izango du: eguen eta egubakoitzetan, 08:30-15:30.

Abuztuari dagokionez, itxita egongo da hiru astez: 2tik 22ra, hain zuzen ere.

Gazte Informazio Gunea kultura etxeko bigarren solairuan dago eta haren zeregina da, besteak beste, beken, laguntzen, bidaien... gaineko informazioa ematea gazteei.

Informazio gehiagorako deitu 943 77 91 57 zenbakira, jo *www.bergara.net* webgunera edo idatzi mezua *gzerbitzua@euskalnet.net* helbidera.



**AISIALDIA** > UMEAK

# 330 neska-mutikok parte hartuko dute 'Oñati milakolore' udalekuetan uztailean

Uztailaren 1etik 30era askotariko ekintzak egingo dituzte; Zuazola institutuaren gimnasioan utzi eta jaso beharko dira neska-mutikoak

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Egubakoitzean, uztailaren 1ean, hasiko dituzte udalekuak. *Oñati milakolore* leloarekin, guztira, 4 eta 10 urte arteko 330 neska-mutikok jardungo dute 33 begiraleren, laguntzaile baten eta koordinatzaile biren zaintzapean. Zuazola institutuko gimnasioaren sarreran bilduko dira egunero 10:00etan, eta leku berean jasoko dituzte umeak 13:00etan.

**KOLOREAK NAGUSI**

Ume bakoitzak talde, begirale eta kolore bat izango du. Horixe da, hain zuzen ere, aurtengo berrikuntzetako bat. Adin tarte bakoitzak kolore bat izango du: 3-4 urtekoak horia; 4-5 urtekoak berdea; 5-6 urtekoak laranja; 6-7 urtekoak urdina; 7-8 urtekoak gorria; eta 8-9-10 urtekoak beltza. Talde bakoitzak kolore bereko banda, bisera eta bandera erabiliko ditu hil osoan.

Udalekuek izango duten beste berrikuntzetako bat *Oñati milakolore* delako abestia da. Umeekin batera protagonista izango da. Egubakoitzean aurkeztuko dute kantua plazako pilotalekuan. Gainera, *Milakolore lorategia* sortuko dute ume guztiek unibertsitate aurrean.



Iazko udalekuetan ibili ziren umeak, plazako jaialdia hasi aurretik. GOIENKARIA

**JOKOAK ETA MUSIKA**

Udalekuen helburu nagusia alaitasuna transmititzea da. Hori horrela, kolorez jantziko dute herria eta ekintzak kalera aterako dituzte. "Egitarau zabala osatu dugu. Adinaren arabera antolatu ditugu ekintzak, eta herriko txoko ezberdinetan egingo ditugu", esan digu udalekuetako arduradun Lukene Astigarragak.

Eguneroko ekintzetan, batez ere, jokoak erabiliko dituzte. Gure jolasekin batera atzerriko jolasak ezagutzeko aukera izango dute. Musikak ere garrantzia izango du umeen artean.

Urtero geroz eta ume gehiagok parte hartzen du udalekuetan. "Udalekuak asko aberasten du umea. Besteak beste, sozializatzeko tresna dira, jolasteko aukera dute, arauak errespetatzen ikasten dituzte, norbere autonomia garatzeko eta euskara bultzatzeko aukera dute, eta euren arteko elkarbizitza indartzen dute", esan digu Astigarragak.

Aurten, iaz baino 32 neskamutiko gehiago ibiliko dira udalekuetan. Igoera nabarmenena 8-9 urte artekoetan gertatu da: aurten 50 ume ibiliko dira eta iaz 19 bakarrik egon ziren.

## Udalekuetako ekintzak

**Uztailaren 7an**
San Fermin eguneko entzierroa.

**Uztailaren 9an eta 29an**
Ibilalditxoak.

**Uztailaren 12an**
Munduko jolasak.

**Uztailaren 14an**
Altxor ezkutua.

**Uztailaren 16an**
Olinpiadak.

**Uztailaren 21ean**
Uraren eguna.

**Uztailaren 23an**
Milakalore zirkua.

**Uztailaren 28an**
Look aldaketa.

**Uztailaren 30ean**
Milakalore festa.

KANTUA

## 'Oñati milakolore' abestia sortu dute

Udalekuetan jardungo duten neska-mutiko guztiek ikasiko dute kantua. Egubakoitzean, uztailaren 2an, aurkeztuko dute plazan.

*Oñati, gure herrixa*
*Oñati maittia*
*mila kolorez jantziko dugu*
*uda honetan, denon artean!*
*Mila kolorez jantziko dugu*
*umore onez, denok batera.*

IKUSKIZUNA

## Ume guztiak zirkuko protagonista

Uztailaren 23an zirku berezia egingo dute udalekuetako umeek. *Milakolore zirkua* delako ikuskizuna egingo dute plazako pilotalekuan. Adinaren arabera paper ezberdinak beteko dituzte: animaliak, lehoi hezitzaileak, orekariak, magoak, gozoki banatzaileak, aurkezleak... Ume guztiek izango dute protagonismoa zirkuan.



OIHANA ELORTZA

## San Lorentzoko ziburuak jarri dituzte berriro

San Lorentzoko Artxubi tabernaren aurreko plazatxoan ziburuak jarri dituzte berriro ere. Igogailuak ipintzeko lanak zirela-eta kendu egin zuten hango jolasparkea, baina aurreko astean berriro jarri dute bere tokian. Laster izango dute umeek ziburuak erabiltzeko aukera.

Bitartean, aurrera dihardute igogailuak ipintzeko lanekin. Dagoeneko jarri dituzte auzoaren alde bietako igogailuendako guneak. Laster jarriko dute bi igogailuak lotu eta auzoa zeharkatuko duen plataforma.

**KIROLA** > UDAKO KANPAINA

# Lehen txanda eta txanda bakarra, gaurtik aurrera

862 neska-mutiko ibiliko dira Zubikoako udako kirol kanpainan

**M.B.** > OÑATI

Udako kirol kanpainako lehen txanda eta txanda bakarra gaur hasi dute. Guztira, 862 neskamutikok jardungo dute kirola egiten: 287 txanda bakarreko eskaintzetan eta 575 lehen txandakoetan.

Urtero moduan, patinajea (142 ume), tenisa (136) eta batuka (115) izan dira eskaintza arrakastatsuenak. Mini-tenisak (91), eskaladak (55), badmintonak (42) eta spinningak (39) ere erantzun ona izan dute.

Lehen txanda uztailaren 9an bukatuko dute eta txanda bakarra uztailaren 23an.

**BESTE TXANDETAN LEKUA DAGO**

Bestalde, bigarren txandarako eta abuztuko bi txandetarako tokia dute oraindik. Besteak beste, mendiko bizikletako, eskaladako, patinajeko eta tenisko talde batzuetan dute lekua. Interesatuek kiroldegian eman dezakete izena. Bigarren txanda uztailaren 12tik 23ra egingo dute eta abuztukoak 3tik 13ra eta 17tik 27ra.

**ARETXABALETA** > KULTURA

# Udako zinemak hainbat film dakartza uztailean Arkupera

Aretxabaletako Aratz elkarteko kideek egin eta saria jaso duen film laburra emango dute uztailaren 13an: 'Are-Baleko sekretoa'

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Opor sasoia da uztaila umeendako, eta Arkupeko egitaraua horiek kontuan hartuta egin du Kultura Sailak. Umeendako ikuskizunekin batera udako zinema izango da protagonista, eta emango dituzten filmen artean aretxabaletarrek egindakoa dago.



Aratzekoen filmaren azala. GOIENKARIA

**PAILAZOAK ETA ANTZERKIAK**

Eguenean, hilak 1, hasi eta hilabetea bukatu bitartean pintura ikastaroetan dabiltzanen lanak izango dira ikusgai erakusketa aretoan. Orain dauden eskulanen lekukoa hartuko dute horiek.

Umeek, ostera, ikuskizunak izango dituzte, guztiak debalde: hilaren 6an, martitzena, Hipo eta Tomax pailazoek *Beldurraren etxea* eskainiko diete (17:30); uztailaren 15ean, eguena, *Zirkun* taldeak *Tina* aurkeztuko du; eta uztailaren 22an, eguena, *Superplast* ikuskizuna eskainiko du Hortzmuga taldeak (19:30).

Helduek, ostera, berbaldia dute uztailaren 8an, eguena, (19:00). Indian bizi den Inazio Galdos jesuita aretxabaletarrak adivasi kulturakoek nekazaritza eta hezkuntza alorrean izan duten garapenaren berri emango du.

**ARETXABALETARREN FILMA**

Uztailean filmak itzuliko dira Zaraia aretora. Udako zinemari dagokionak emango dituzte 2 euroren truke. Hona: uztailaren 7an eta 9an (21:30) eta 12an (16:00), *Que se mueran los feos*; uztailaren 14an eta 16an (21:30) eta 19an (16:00), *Furia de Titanes*; eta uztailaren 21ean eta 23an (21:30) eta 26an (16:00), *Millennium 3*.

Baina ez dira izango bakarrak, *Zine berezia* deitutako atalean adimen urritasuna dutenek egindako bi film emango dituzte-eta. Uztailaren 13an izango da, martitzena, eta bi saio iragarri dituzte: 19:00etan bata eta 21:30ean, bestea. Aretxabaletako Aratz elkartekoek egindako film laburra eskainiko dute lehenengo, Atzegi elkarteak antolatutako lehiaketan lehen saria jaso duena aurten: *Are-Baleko sekretoa*. Eta gero, John Andueza arrasatearrak zu zendutako *Simplemente*.

**IKASTAROAK**

Horrekin guztiarekin batera, ikastaroak ere egingo dituzte: imitaziozko bitxiak; Photoshop programa; pilates jarduera; josketa eta konponketak; eta krema eta ukenduak. Ume eta gazteendako, ostera, pintura ikastaro trinkoak. Argibide gehiago gura duenak jo dezala Arkupera.

**ESKORIATZA** > ZAHARREN EGOITZA

# Zaharren egoitzako zuzendariaren kontratua bertan behera utzi dute

Egoitzaren ikerketak erakutsi du "2010eko maiatzerako egoitzako altxortegia ia guztiz agortuta dagoela"

**M.A. / U.M.** > ESKORIATZA

Larria da zaharren egoitzaren egoera. Hala ikusi du Udal Gobernuak, egoitzaren gaineko ikerketaren datuak eskuratu ostean. Hori horrela, zera jakinarazi du: "Egiaztatuta geldituta diren gertakarien larritasuna kontuan izanik, patronatuak egoitzarekin zuen lan-kontratua eteteko erabakia hartu du".

**GEZURRAK KONTABILITATEAN**

Datuen arabera, 2006tik 2010erako egoitzaren kontabilitatea egiteko enpresa bat kontratatu zuten, eta haren datuekin jakin dute "egoitzako zuzendariak ez duela urteko kontabilitaterik egin eta Juntara aurkezten zituen balantze eta kontuak ez direla benetakoak izan".

Kopurutan ikusita, 2007an 100.000 euroko balantze negatiboa, 2008 eta 2009an 300.000 euro ingurukoa eta 2006an 60.000 ingurukoa atzeman dute; nahiz eta azken galera hori urte hartako ia 280.000 euroko dohaintza batek "konpentsatu".

**ADMINISTRATZAILEA ERANTZULE**

Eta ez hori bakarrik. Udal Gobernuak jakinarazi du, baita ere, zuzendariak ez duela Aldundian "hilero aurkeztu beharreko dirulaguntza eskaria aurkeztu".

Gertaeren aurrean, haren kontratua eteteaz gain, "kontuhartzailetzako eta gizarte zerbitzuetako udal teknikariek egin duten lanari esker Aldundiak ordaintzeke zuen diru kopurua azkar ordaintzea" lortu dute. Eta "epe motzean Aldundiko laguntzetan igoera nabarmena" espero dute eta horri esker egoitzako gastu arrunta, behintzat, ordaindu ahal izatea.

EZKER ABERTZALEAREN HAUSNARKETA

## Administratzailea egiten dute erantzule

Ezker abertzaleko kideak arduratuta azaldu dira "egoera oso larria" delako. Iazko herri kontsultaren aurretik administratzaileak emandako datuek egoitzak 300.000 euroko diru poltsa zuela diote, "hain beharrezkoak diren hobekuntzak egiteko". Oraingo datuak ikusi ostean, baina, egoitzaren erantzule bakarra administratzailea dela diote. Uste dute patronatuak neurri egokiak hartu dituela, baina uste dute "gertakari larriak direnez erantzukizunak eskatu" beharko dituela patronatuak. Egoitza zabalik mantentzea eta nagusien bizi kalitatea bermatzea ezinbesteko ikusten dute eta herritarren ekarpenekin egoerari buelta emango diotela gaineratu dute.

**ESKORIATZA** > ERRETIRATUAK

# Udako merienda egin dute Olazarko kideek

Eguraldi ona lagun, erretiratu asko elkartu ziren eguenean, eta kanpoan egin zuten jaialditxoa

**M.A.** > ESKORIATZA

Uda parteko merienda egin zuten Olazar erretiratuen elkarteko kideek eguenean, hilak 24. San Juan eguna izan arren, San Pedro jaiei ongietorria egiteko jaialdia izan zen, eta, eguraldi ona lagun, kanpoan egin zuten.

**DANTZALDIA**

Erretiratu mordoa elkartu zen afaldu eta dantzan egiteko. Izan ere, afari-merienda ederra gertatuta zeukaten erretiratuek eurek: txorizoa eta antzeko hestebeteak; okela gisatua saltsan; eta ijito besoa. Afalostean berriketan jarduteko tartea izan zuten, baita dantzan egiteko ere. Azken hilabeteotan egubakoitz guztietan egin dituzte dantzaldiak erretiratuek –maiatza bukatu artean–, eta batzuek ederto moldatzen direla erakutsi zuten.

Uztailean beste ospakizun bat izango dute Olazarko kideek: 80 urtetik gorako bazkideei omenalditxoa egingo diete. Orduan gastronomia elkartean izango dute bazkaria.


Olazar erretiratuen elkarteko kideak afari-merienda egin bitartean eguen arratsaldean. MIRIAN BITERI



Iazko mozorro jaitsieran Erroziko Ama Birjina ere izan zen. ARTXIBOA

**ELGETA** > JAIAK

# Jaien atarian, azken orduko prestatze-lanetan

Mozorro gauerako lanean dihardu, ezkutuan, koadrila batek baino gehiagok; lanaren emaitza eguenean, 19:30ak aldera ikusiko dugu

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Mozorrotuta hasiko ditugu herriko jaiak eguenean. Herriko umeek horrela eskatuta, joko olinpikoetan oinarritutako haurjolasak prestatu ditu Udalak zenbait gurasoren laguntzarekin. Abiadura lasterketa, altuera jauzia eta ura erabiltzen den hainbat kirol-joko gertatu dituzte. Maskota propioa, zuzi olinpikoa eta desfilea ere izango dute Elgetako olinpiadek. Gainera, kolore batekin janzteko deia egin dute Udaletik, eta hainbat etxetan dagoeneko prestatzen ari dira mozorroa. Umeak soilik ez. Isilean, zenbait koadrila lanean ari dira-eta.

**PRESTATZE-LANETAN**

Egun gutxi batzuk besterik ez dira gelditzen 2010eko Ferixa Nagusiko jaiei hasiera emateko. Udal langileendako egun gogorrak izaten dira hauek. Dagoeneko gertatu dituzte plazako eta gaztetxe ondoko lautadako eszenatokiak, baina hesiak, suzko zezena eta abarrek prest behar dute beharra iristen denerako.

Tabernariek ere badute zeregina. Langile errefortzuak lotu, izozkailuak bete, musika gertatu, menuak erabaki...

Ganadu azokara etortzekoak diren baserritarrak ere lanpetuta dabiltza. Animaliak garbitzeko eta txukuntzeko egunak dira honakoak. Ez soilik azokara etortzekoak direnak. Jakina da asto karreran parte hartzekoak diren astoak ere dotoretzen saiatzen direla euren jabeak. Ahalegin bera egiten dute domekako azokara euren produktuak saltzera etorriko diren artisauek eta baserritarrek.

**BRINDISA, 19:30EAN**

Eguenean, uztailaren 1ean, 17:00etan hasiko dira Elgetako olinpiadak Herriko plazan. Bi ordu eta erdi beranduago mozorroen jaitsiera eta brindisa egingo dituzte. Alkate txikiari agintea emanda hasiko dira domekara arte luzatuko diren Ferixa Nagusiko jaiak.

**LEINTZ GATZAGA** > KULTURA

# Iraileko Andramaixak gertatzen dabil azken asteotan Kultura Saila herritarrekin batera

Aurrekontu murrizketa izan dute herriko jai nagusiek, baina ekitaldi garrantzitsuenei eutsi egingo diete

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Irailaren 3an, 4an, 5ean, 7an eta 8an ospatuko dituzte Andramaixak Gatzagan, eta azken asteotan dabiltza egitaraua gertatzen. Herritarrei laguntza eskatu zieten Kultura Saileko arduradunek, eta batzarrak egin ere bai: "Gazteak etorri dira batzarretara eta jaietarako gogotsu daude. Txosna jartzeko asmoa agertu dute", azaldu du Ainara Zubillaga zinegotziak.

**MUSIKAREN ORDEZ BERTSOLARIAK**

Kultura zinegotziak onartu du jaietarako aurrekontua murriztu beharrean izan direla, beste partida batzuekin egindako moduan, baina jaiegun kopurua mantendu egin dute, eta ekitaldirik garrantzitsuenak ere bai: gazteendako kontzertua; umeendako jolasak; mendi bizikleta ibilaldia… "Aldaketa batzuk egin ditugu, baina ez dut uste herritarrek igarriko diotenik. Herri afaria egiten dugunean musika taldea ekarri izan dugu afalosterako, baina jendeak alde egiten du etxera. Mahaiaren bueltan eusteko horiei, bertsolariak eta trikitilariak izango ditugu aurten", dio Zubillagak. Egitaraua ia lotuta dauka Kultura Sailak.

**ARAMAIO** > JENDARTEA

# Zuiako umeen eta nagusien topaketak izango dira uztailean

Nagusiek Gasteizen egingo dute topaketa, uztailaren 9an; gaztetxoen Euskararen Eguna Legution izango da, hilaren 22an

**E.M.** > ARAMAIO

Zuiako Koadrilak antolatuta, Adineko Pertsonen XIII. Topaketa ospatuko da Gasteizen datorren uztailaren 9an. Gasteiz ezagutzeko bisitak izango dituzte eta bazkaria Fundacion Estadio jatetxean izango da, eguerdiko mezaren ostean.

Aramaiotik autobusa 09:15ean aterako da eta itzulera 20:00 aldean izango da. Bada, izena emateko 26 euro sartu behar dira Caja Vital Kutxako 98 0102679817 kontu zenbakian. Uztailaren 2ra arte eman daiteke izena.

Bestalde, Zuiako Koadrilako gaztetxoek Euskararen Eguna ospatuko dute Legution uztailaren 22an. 12 urtera arteko neska-mutikoak batuko dira Zuiako Euskararen Egunaren XI. ekitaldian. Aramaiotik 10:15ean abiatuko dira eta izenematea liburutegian egin daiteke. Horretarako azken eguna uztailaren 16a izango da.

**ODOL ATERATZEA ETZI**

Bestalde, eguaztenean, ekainaren 30ean, odol ateratzea egingo dute Aramaioko osasun etxean, 16:30etik 20:00etara.



San Martingo ikasle talde bat marrazketa eskolak jasotzen. E.M.

**ANTZUOLA** > JAIAK

# Lizarragako auzotarrek San Martzialak ospatuko dituzte

Aste bukaerarako antolatu dituzte jaietako ekintza gehienak

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ANTZUOLA

San Martzial jaiak ospatuko dituzte Lizarragako auzotarrek. Ekainaren 30ean, San Martzial egunean, meza egingo dute auzoko ermitan; 19:00etan izango da hori. Ondoren, herri afaria dute herriko trikitilari gazteek girotuta.

Aste bukaerari begira, zapatu arratsaldean hasiko dituzte ekintzak. 16:30ean plater tiroketa izango dute; eta, horrez gain, umeendako jolasak eta puzgarriak. 19:00etan txokolate-jana egingo dute ermitaren aurrealdean. Iluntzean herri afaria egingo dute. Bertsolariek eta trikitilariek girotuko dute afaria: Gurrutxaga bertsolariak eta Unanue, Agirre eta Biteri trikitilariek. Gauerdian su artifizialak botako dituzte. Domekan, txistularien dianarekin hasiko dute eguna. Ondoren, meza, dantza saioa eta *lunch*-a izango dira. Gainera, Lizarragako txirrindulari igoera egingo dute; meza ondoren banatuko dituzte sariak. Arratsaldean erromeria izango dute Miren, Agur eta Gorkak girotuta.

**MENDI IRTEERA**

Arrola mendi taldeak *Lakuetako ibilbideak* irteera antolatu du uztailaren 10erako eta 11rako. Izena emateko azken eguna ekainaren 30a izango da, 07:00etatik 08:00etara, Olaran etxean; eta aurretik 635 205 841 telefonora deituta. Bazkideek 40 euro eta ez bazkideek 46 euro ordaindu beharko dituzte. 18 urtetik beherakoek, bazkideek 20 euro eta bazkide ez direnek 25 euro ordaindu beharko dituzte.

Zapatuan 08:00etan izango da irteera, Olaran etxearen parean.

# Kirola



**> SASKIBALOIA**
Hirunako saskibaloi lehiaketa arrakastatsua Bergaran **> 22-23**



**> KROSA**
Letamendi eta Aranguren izan ziren azkarrenak Torreauzon **> 24**



**> PILOTA**
Aitor Mendizabal antzuolarrak ez du finalera sailkatzerik lortu **> 25**

# Isasti: "Oso arriskutsua da Anboto gauez pasatzea"

**ARRISKUTSUA** Hiru Handiak egin dutenek diote noranzkoa aldatuta proba "arriskutsuagoa" dela

**PILAKETAK** Anboton, igotzeko eta jaisteko, ilara luzeak sortu ziren 08:00ak aldera



Hiru Handiak probako parte-hartzaileak irteera puntuan. XABIER URTZELAI

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA

Gau luzea izan zuten debagoiendar askok egubakoitzetik zapatura, Hiru Handiak iraupen luzeko proban parte hartu zuten-eta. 100 kilometro egiteko gertu zeuden Ondategiko (Araba) irteera puntuan. Ibilbidearen noranzkoa aldatzea erabaki zuten antolatzaileek. Hori horrela, Gorbeia igo zuten lehenengo, Anboto bigarren eta Aizkorri hirugarren. Araian (Araba) bukatu zuten mendi martxa.

Aldaketa horrek asko gogortu zuen proba. Debagoiendar batzuendako "askoz arriskutsuagoa" izan zen. "Bi noranzkoetan egin dut proba, eta atzokoa askoz gogorragoa iruditu zitzaidan. Alde batetik, Anboto gauez pasatzea arriskutsua da. Beste alde batetik, Elgeara eguerdi aldera heldu gara, beroarekin eta haize gutxirekin", esan zigun Argider Isastik.

Oñatiarrak gustura bukatu zuen proba (14.38.19), baina sabeleko minarekin: "Likido asko edan dugu, baina gutxi jan. Larri heldu naiz bukaerara".

**AIZKORRI AZKENA**

Ibilbide aldaketaren gogortasunaz galdetuta, iritzi berekoa zen Jon Nuño arrasatearra (22.39.22). Baina, hark beste arrazoi batzuk eman dizkigu. "Aizkorri azkena igotzea izugarria da, indar gutxirekin zaudelako. Gainera, ibilbideko bigarren hornidura-gunetik Aizkorrira 30 kilometro daude. Asko dira. 100 kilometroko proba da, baina bi hornidura-gune daude bakarrik", esan zigun Nuñok.

**ANBOTON PILAKETAK**

Erritmo bera zeramaten 700 bat pertsona 08:00ak aldera heldu ziren Anbotora, batzuk igotzen zeuden eta beste batzuk jaisten. Ilara luzeak sortu ziren. "Leku batzuetatik banaka-banaka pasatu behar izan genuen, eta 45 bat minutu galdu genituen han", esan digu Nuñok.

Pilaketa berean egon zen Iñigo Gartzia de Kortazar oñatiarra. "Ordubete galdu genuen. Gainera, parte-hartzaile batek min hartu zuen eta helikopteroari deitu beharra izan zuten", dio.

Lehen aldiz parte hartu du oñatiarrak Hiru Handiak proban eta oso gogorra iruditu zaio. "Ez dakit errepikatzeko gogorik dudan. Une honetan, ez. Lehen aldia izanda, amaitzea nuen helburu. Nire buruari animoak ematen ibili naiz azken kilometroetan. Beste lau lagunekin hartu dut irteera, baina nik bakarrik amaitu dut", esan digu.

**EHUN MILIAK**

Zapatuko proban parte hartu zutenetako batzuek uztailean egingo duten Ehun Miliak (167 km) ultramaratoi lasterketan parte hartuko dute. Horietako bat da Xabi Iñurritegi oñatiarra. "Ez nuen mendi martxa egiteko asmorik, baina Ehun Miliak probarako entrenamendu gisa erabili dut. Oso gustura ibili naiz", adierazi zigun.

**AZKARRENAK**

Parte-hartzaileetako batzuk Landara heldu barik zeudela iritsi zen Pello Etxeberria helmugara: 11.58.10eko denbora egin zuen. Oier Ibarbia eta Jose Luis Albizuri heldu ziren jarraian. Emakumeen artean Oihana Azkorbebeitia izan zen onena 14.47.28ko denbora eginez. Leire Iruretagoiena eta Sonia Regueiro izan ziren bigarren eta hirugarren.



Markel Elortza eta Arkaitz Arregi arrasatearrak korrika egiten. XABIER URTZELAI

ESANAK

**"Gustura ibili naiz, baina bukaera aldera larri ibili naiz. Gutxi jan dugu eta sabelarekin arazoak izan ditut"**

**Argider Isasti** > Oñatiarra

**"Anboton ilara luzeak sortu dira. Toki batzuetatik banaka-banaka pasa behar izan dugu. 45 bat minutu galdu ditugu"**

**Jon Nuño** > Arrasatearra

**"Une honetan ez dut errepikatzeko gogorik. Bost lagun etorri gara, eta nik bakarrik amaitu dut proba"**

**Iñigo Gartzia** > Oñatiarra



Isasti, Iñurritegi eta Bikuña oñatiarrak proba hasi aurretik. XABIER URTZELAI

**3X3 TXAPELKETA** > 3. EDIZIOA

# Asteburu arrakastatsua Bergarako 3x3 txapelketan

## 90 talde inguruk eman dute izena kategoria guztietan, haur zein gazte

## Bergarako saskibaloia sustatzeko ekimenak bere helburuak bete ditu

**LANDER MUÑAGORRI** > BERGARA

Iragan den aste guztian zehar Saskibaloiaren Astea ospatu dute Bergaran Saskibaloi Elkarteak antolatuta. Film eta hitzaldi banarekin, saskibaloiaren inguruan berotzen hasi ziren martitzenean. Baina saskibaloiarekin gozatzeko aukera asteburuan egon zen batez ere. Izan ere zapatu eta domeka artean 3x3 txapelketa jokatu zen Bergarako herriko plazan bertan.

Haur zein helduek hartu zuten parte txapelketan, orotara 90 talde inguruk. Haurren kadete, infantil, alebin eta benjaminen kategorietan bakarrik 140 parte hartzaile inguru izan zituzten, eta hala aurreko urteetako parte hartzea hobetu dute aurtengo txapelketan. Kontuan izan iaz 160 lagun izan zirela 3x3-koan.

Partaidetza altuari eguraldi apartak lagunduta, asteburuko lehiaketaren balorazio ona egin dute antolatzaileek. Bergaran saskibaloia sustatzeko asmotan antolatu zuten txapelketa eta jardunaldi hauek, eta neurri handi batean lortu dutela uste du Ugutz Basauri antolatzaileak. "Bergarako haurrek futbola eta beste kirol batzuetan ematen zuten izena, baina orain pixkanaka gure esparrua berreskuratzen ari gara. Asteburuko ekintza honetan, gainera, hori ikusi da, partaidetza altua izan baitu 3x3koak". Partidu eta partidu artean, haur zein gazteek jaurtiketak egiteko aprobetxatu zuten, eta hori poztekoa dela dio Basaurik.

Saskibaloia herrian bultzatzeko lanean aritu diren kide guztiak ekarri ditu gogora Basaurik, guraso eta taldeko jokalarien lan eskerga eskertuz.

**PUNTA-PUNTAKO PARTAIDETZA**

Bergara eta inguruko herrietatik jende ugari inguratu zen 3x3ko txapelketara, baina guztien artean nabarmendu zen jokalaria Lander Lasa izan zen. Izan ere, goi mailako jokalaria dugu tolosarra, eta hurrengo denboraldian ACB ligan jokatuko du Lagun Aro talde donostiarrarekin. Kontuan hartzekoa da bere parte hartzea, saskibaloiko lehen mailan bi gipuzkoarrek jokatzen baitute soilik.

Bergarako 3x3 txapelketako kalitateari plusa eman zion hortaz Lasak, eta lehiatu zen esparru ezberdinetan garaile izan zen. Alde batetik senior elite mailan lehenengo saria eskuratu zuen No Presentados izeneko taldearekin, eta bestetik hirukoen txapelketan ere txapela eraman zuen etxera. Ezeren aurretik saskibaloi zalea dela zehaztu zuen, eta Bergarara ongi pasatzeko asmoz joan zela.

**KIROLTASUNA**

3x3 txapelketa horretan sari guztiak talde bakoitzak lortutako emaitzen araberakoak izan baziren ere, bazen kiroltasunari eskainiko sari bat ere. Kasu honetan Burdinolako hirukoteak jaso zuen ohore hori. Lehiaren gainetik, jokoan egiten zituzten arau urratzeak eurak zigortzea hartu zuten kontuan antolatzaileek. Izan ere, epailerik gabe jokatu ziren zapatuko partidu ugari, eta jokalariak eurak ziren kasu gehienetan epaileak.

Amaitzeko aipatu, asteburuan zehar Kantabriako spa hotel baterako errifak banatu zituztela. Zenbaki saritua 4634-a izan zen. Boleto hori daukanak Saskibaloi Elkartera joan beharko du saria eskuratzeko.



Bergarako plazara jende asko animatu zen saskibaloiaz gozatzeko.



Eguzkiak gogor astindu zituen jokalariak. J.C.

INKESTA


Txapelketako finala jokatzea falta zitzaien, baina mutil koadrila hau saltoka eta pozik topatu genuen; garaipena ospatzen ziharduten: "Lagun talde berekoak gara guztiak. Finalera iritsi garen bi taldeak koadrilakoak gara, beraz, irabazi dugu dagoeneko". Coca-cola eta kopa eskuan hartzeko irrikan zeuden: "Gu baino gazteagoen kontra jokatu dugu eta erraz irabazi dugu. Dena dela, gu hasiera-hasieratik irabaztera etorri gara, kopa etxera eraman nahi genuen".


"Gaurko eguna oso ondo egon da. Ideia ona da horrelako txapelketak antolatzea saskibaloia eta kirola sustatzeko. Guk juniorren kategorian jokatu dugu, finalerdira iritsi gara, beraz, sentsazio onarekin goaz etxera".


"Bergarara natorren bigarren aldia da eta gaur ere oso ondo ibili naiz. Bero egin du, baina taldekide onekin dena da posible. Horrelako ekimenak oso ondo iruditzen zaizkit eta uste dut lortzen dutela nahi duten helburua".


"Ondo pasatzeko asmoarekin etorri gara Arrasatetik eta azkenean irabazi egin dugu. Maila ona ikusi dugu txapelketan. Nik uste dut horrelako ekimenekin poliki-poliki gero eta jende gehiago batuko dela saskibaloira".


JULIO CALLEJA


Bergarako jokalaria baloiari begira adi-adi. JULIO CALLEJA


3x3 txapelketan lehia handia izan zen. J.C.

## Nagusiak

**SENIOR ELITE**
**Mutilak**
> No presentados.
**Neskak**
> Bad News.

**SENIOR DEBAGOIENA**
**Mutilak**
> Pipas pal pajaro.
**Neskak**
> Lore lore maku maku.

**JUNIOR**
**Mutilak**
> Pedalmans.

**HIRUKOAK**
**Mutil eta neskak**
> Lander Lasa.

**KIROLTASUNA**
**Mutil eta neskak**
> Burdinola.

## Gaztetxoak

**KADETEAK**
**Mutilak**
> Haitza.
**Neskak**
> BKE KF.

**INFANTILAK**
**Mutilak**
> Magic ball all star.
**Neskak**
> Amae.

**ALEBINAK**
**Mutilak**
> Kangrejomari.
**Neskak**
> Tipirri taparra.

**BENJAMINAK**
**Mutilak**
> Bergarako txikiak.

**HIRUKOAK**
**Mutil eta neskak**
> Mikel Linazasoro.


Senior mailan sei neska taldek hartu zuten parte. J.C.


Saritutako talde eta jokalari guztiak euren sariekin. L.M.

INKESTA



"Bero handia egin du eta apur bat sufritu dugu, baina, oso ondo egon da. Junior mailan jokatu dugu, baina ezin izan gara finalerdira iritsi. Dena dela, pozik geratu gara. Azken finean ondo pasatzera etorri gara"



"Oso pozik gaude aurtengo edizioarekin talde asko aurkeztu direlako; denera 80 talde izan ditugu, ez dago batere gaizki. Gure helburua da saskibaloia kalera ateratzea eta ahal den neurrian ezagutzera ematea".



"Guk senior kategorian jokatu dugu eta irabazi egin dugu, beraz, ospatzeko moduan gaude. Oso egun polita izan da gaurkoa. Azken finean zerbait desberdina egin dugu, ondo pasatu dugu eta kirola ere egin dugu. Pena da neska talde gutxi egon direla, sei bakarrik egon gara. Ea datorren urtean neska gehiago animatzen diren".



Alebin mailako neska koadrila hau pozik ibili zen domeka goizean saskibaloian jokatzen: "Oso ondo ibili gara, goiz benetan polita izan da, baina, egia esan, oso nekatuta gaude orain. Gogorra izan da". Irabazi egin zuten eta kopa eta guzti itzuli ziren etxera: "Pozik gaude irabazi egin dugulako, orain bazkari eder bat merezi dugu", adierazi zuten barre artean.




105 korrikalarik hartu zuten parte Torreauzoko 13. krosean. JULIO CALLEJA



Mutilen podiuma: Letamendi, Romero, Esnaola eta Varela. M.B.



Perez de Arenatza, Aranguren, Bernal eta Ezkibel sariak jaso ondoren. M.B.

**KROSA** > OÑATIKO TORREAUZON

# Iban Letamendik eta Idoia Arangurenek irabazi zuten Torreauzoko 13. krosa

Letamendi oñatiarrak 25.53ko denbora egin zuen helmugan eta Aranguren antzuolarrak 36.00

Guztira, 105 korrikalarik egin zuten San Pedro-Olate-San Pedro ibilbideko 7,4 kilometroak

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Iban Letamendi oñatiarra eta Idoia Aranguren antzuolarra izan ziren Oñatiko Torreauzon jokatutako kroseko irabazleak. Gaizka Romero, Zigor Esnaola, Amaia Bernal eta Yolanda Perez de Arenatza ere igo ziren podiumera. Guztira, 105 korrikalarik egin zuten 7,4 kilometroko ibilbidea.

**LETAMENDI ETA ROMERO**

11:00etan puntuan hasi zuten lasterketa. Bero sargoria egiten duen ordu horretan.

Lehenengo metrotik jarri ziren lasterketa buruan proba irabazteko hautagaiak; besteak beste, Iban Letamendi eta Gaizka Romerok. Biek ala biek lehia estua izan zuten. Hasieran Romerok tartea zabaldu zuen. Letamendik Albarritza baserriko aldapa hasi aurretik harrapatu eta atzean utzi zuen Romero.

Handik aurrera, arazo barik, abantaila handitzen joan zen Letamendi, eta helmugara bakar-bakarrik heldu zen. Estrategia garbia erabili zuen irabazleak. "Banekien Romero indartsu irtengo zela. Joaneko kilometroak aldapa gora dira. Tarte horretan indarrak gorde ditut, itzulerakoan lasaiago ibiltzeko", esan zigun lasterketa bukaeran.

Gaizka Romero, aldiz, estu heldu zen helmugara. "Bero ikaragarria egin du. Oso gogorra izan da", esan zigun.

**EMAKUMEAK**

Emakumeen lasterketan Idoia Aranguren izan zen azkarrena. Ezustea izan zen krosa irabaztea. "Aldika-aldika egiten dut korrika eta egun pasa etorri gara. Ibilbidea polita da, baina ez nuen espero lehena izatea", esan zigun.

Irabazleei sariak banatu ondoren, krosean parte hartu zuten korrikalarien artean zozketa egin zuten: jaki loteak eta maletak banatu zituzten.

**ZOZKETAREN EMAITZA**

Bestalde, 356 zenbakia da Torreauzoko kroseko zozketako zenbaki saritua. Jabeak, gasolina erosteko 900 euroko saria jasoko du Madalena gasolindegian. Gainera, 056, 156, 256, 456, 556, 656, 756, 856 eta 956 zenbakien jabeek 100 euroko bonoa irabazi dute.

## Mutil eta nesken podiumak

| MUTILAK | |
|---|---|
| Iban Letamendi | 25.53 |
| Gaizka Romero | 26.31 |
| Zigor Esnaola | 26.52 |

| NESKAK | |
|---|---|
| Idoia Aranguren | 36.00 |
| Amaia Bernal | 36.39 |
| Yolanda Perez de Arenatza | 38.32 |

KORRIKALARIEK ESANDAKOAK



**Iban Letamendi**
Mutiletan azkarrena

"Albarritza baserriko aldapa da ibilbideko zati zailena. Itzulerakoa arinagoa da aldapa behera delako. Dena den, bero handia egin du eta oso gogorra izan da".



**Idoia Aranguren**
Nesketan azkarrena

"Lehen aldia da kros hau egiten dudala, eta asko gustatu zait ibilbidea. Ondo pasatzera etorri gara, eta egin duen beroarekin ez nuen espero lehena izatea".



**Oier Irizar eta Isma Zubia**
Oñatiarrak

"11:00etan izan arren, bero handia egin du. Hala, lasai egin ditugu joaneko kilometroak, indarrak gordetzeko. Ezagutzen dugu ibilbidea eta horrek lagundu egin digu indarrak neurtzerako orduan. Oso gustura ibili gara".



**Mikel Sologaistoa, Miren Galdos eta Aran Ezkibel**
Oñatiarrak

"Ibilbide honetako estrategia oso garbia da: joanekoan indarrak gorde behar dira, itzulerakoa arinago egiteko. Gainera, bero handia egin du. Hirurok elkarrekin irten gara, Albarritza parean egin dugu topo Letamendirekin. Hura, Olatetik bueltan zetorren, eta gu oraindik heldu barik!".

**PILOTA** > LAU T'ERDIKO TXAPELKETA

# Aitor Mendizabal Elgetako txapelketako finaletik kanpo

Antzuolarrak Eneko Yoldiren kontra galdu zuen 22-17 egubakoitz gaueko finalerdian

Kadeteen eta 23 urte azpikoen mailako finalak barikuan jokatuko dituzte Elgetan, 22:00etan

**MIREIA BIKUÑA** > ELGETA

Aitor Mendizabalek ez du jokatuko Elgetako lau t'erdiko txapelketako finala. Egubakoitzean jokatu zituzten finalerdiak eta antzuolarrak 22-17 galdu zuen Eneko Yoldi nafarraren kontra.

Finalerdia berehala jarri zitzaion kontra antzuolarrari. Hasi orduko 10-1 aurreratu zen Yoldi. Mendizabal astunegi ibili zen ezkerreko jokoarekin. "Ez dut asmatu hasierako tantoetan. Biok elkar ondo ezagutzen dugu, eta badakigu ze bertute eta gabezia ditugun. Yoldik hobeto aprobetxatu ditu nire gabeziak", esan zigun Mendizabalek.

Markagailuan tartea zabaldu ondoren, Yoldik lasaiago jokatu zuen, eta abantaila mantentzeko gai izan zen. Hain zuzen ere, 15-4 eta 20-10 aurreratu zen. Baina, Mendizabalek ez zuen amore eman eta zazpi tanto jarraian egin zituen (20-17). Bazirudien emaitzari bueltaemateko gai izango zela antzuolarra, baina une erabakigarrian Yoldik hobeto errematatu zuen.

Partidua galduta final barik geratu da Mendizabal. "Triste nago. Iaz bezala finala jokatzeko gogoa nuen. Baina, hasieratik ikusi dut ezin nuela. Gogoa eta ilusioa nituen, baina ezin izan dut nire jokoa egin".

**FINALAK, EGUBAKOITZEAN**

Egubakoitzean lau t'erdiko txapelketako gainerako hiru finalerdiak jokatu zituzten. 23 urtez azpikoetan Larrañagak 22-13 irabazi zuen Gorkaren kontra. Hori horrela, Yoldik eta Larrañagak jokatuko dute finala.

Bestalde, kadete mailako finalerdietan Irribarrua eta Elezkano II.a izan ziren irabazleak. Hurrenez hurren, Olano eta Labaka menderatu zituzten.

Kadete mailako eta 23 urtez azpikoen finalak egubakoitzean, hilaren 2an, jokatuko dituzte Elgetako pilotalekuan, 22:00etan.

**IAZ, RICO ETA JAKA**

Iaz, Rico eta Jaka izan ziren irabazleak lau t'erdiko txapelketan. Ricok Aitor Mendizabal menderatu zuen (22-15), eta Jakak Elezkano II.a (22-21) final parekatu batean. Azken horrek iazko arantza atera nahiko du Larrañagaren kontra.




Aitor Mendizabal pilota astintzen egubakoitzeko finalerdian. JULIO CALLEJA

ESANAK

**"Bederatzi tantoko aldea hartu du hasieran, eta ezin izan diot emaitzari buelta eman. Nahi eta ezin ibili naiz"**

**Aitor Mendizabal** > Pilotaria

**"Eneko Yoldik eta biok ondo ezagutzen dugu elkar, eta badakigu zeintzuk diren gure bertuteak eta gabeziak"**

**Aitor Mendizabal** > Pilotaria




JULIO CALLEJA

## Irujok irabazi zuen Sanjuanetako lehia

Juan Martinez de Irujok eta Merinok 22-15 irabazi zuten Titin III.a eta Laskurainen kontra atzo, Arrasateko Uarkape pilotalekuan. Eskuz banakako txapeldunari kosta egin zitzaion partiduan sartzea. 12-15 aurreratu ziren urdinak, baina Irujok eta Merinok hamar tanto jarraian egin, eta emaitzari buelta eman zioten.

**AUTOAK** > TELEGIDATUAK

# Gidari onenak Euskal Herriko auto telegidatuen txapelketan

Hirugarren proba jokatu zuten zapatuan Intxaurtxueta kiroldegian, eta Sergio Frutos eskoriatzarra izan zen azkarrena

**M.B.** > ESKORIATZA

Eskoriatzako Club Radio Control Dos Pistones taldeak antolatuta Euskal Herriko auto telegidatuen txapelketako proba jokatu zuten aste bukaeran. Hirugarren proba puntuagarria zen, eta gidari azkarrena Sergio Frutos eskoriatzarra izan zen. Roberto Gil bilbotarra eta Iñigo Gartzia eskoriatzarra sailkatu ziren bigarren eta hirugarren tokietan.

Guztira,Eskoriatzako, Arrasateko, Legazpiko, Plentziako, Bilboko eta Gasteizeko 10 gidarik parte hartu zuten.

**TXAPELKETA BI ZATITAN**

Auto telegidatuen proba bi zatitan banatu zuten, 1 Formulako proben antzera. Alde batetik, zapatu arratsaldean, entrenamendu libreak egin zituzten. Bi serie egin zituzten, eta bakoitzean bost minutuko hiru txanda. "Entrenamenduetan denbora onenak egiten ahalegindu gara. Denbora horien arabera antolatu dugu irteera", esan zigun antolatzaile taldeko Iñigo Gartziak.

Beste alde batetik, atzo goizean, txapelketa jokatu zuten. Zapatuko denborak kontutan hartuta jarri zituzten autoak irteera puntuan. Gidari guztiek 15 minutu izan zituzten kiroldegiko kantxan zegoen zirkuituari itzuliak egiteko. Lehia estua izan zuten auto guztiek, eta, Sergio Frutosen autoa sartu zen lehena helmugan.

**HARMAILAK BETETA**

Antolatzaileak pozik zeuden gidariek egindako lanarekin, eta herritarren erantzunarekin: "Lasterketa ikusteko harmailak bete egin dira. Gustura gaude, herritarren erantzunarekin eta gidarien lanarekin".




Sergio Frutos, Jorge Lopez, Iñigo Gartzia, Oskar Zubia eta Jabi Martin. J. CALLEJA

Abantailaz betetako kluba!

Goiena kluba

# Atera etekina txartelari!




## Abantailak

- Goienkaria astelehenetan eta ostiraletan etxeko postontzian jasotzea
- Goienak antolatutako ekitaldi eta ikastaroetan prezio berezia
- Goienak kaleratzen dituen produktuetan prezio berezia: DVD kopiak, CDak, kamisetak, Goienkaria-ko Sailkatuak, eskelak, ekitaldietarako sarrerak... eta orain, opari eta deskontu paregabeak lortu ditugu zuretzat

**Eta gainera, Goiena Klubeko zozketetan parte hartzeko aukera izango duzu.**

## Deskontu bereziak

LiLURA EDERTZE INSTITUTUA

**BERGARA (Bazkidearentzat eta lagunarentzat)**
- Laser depilazioa: hanka osoa + izterrondoa **-%15** + opari besapekoak (axilak).
- -%20 elikagai-intolerantzia proban.
- -%10 mikropigmentazioan: begietan, ezpainetan edo bekainetan.
- -%10 fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.

RENAULT AUTOBERRI

**ARRASATE/AZPEITIA/ELGOIBAR/IRUN/TOLOSA**
- **-%5** konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
- **-%25** saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
- Ordezkapeneko autoa 20 euro.
- Erosketetaren momentuan, goian aipatutako deskontua baino handiagoa badago, bezeroari deskontu handiena eskainiko diogu.

iKER SUKALDEAK

**ARRASATE/OÑATI**
- Sukalde osoa erosita, etxetresna elektriko bat opari.

Barceló BIDAIAK

**BERGARA/ARRASATE**
- **-%5** pakete konbinatuetan 600 eurotik gorako erosketagatik (eskaintza berezietan izan ezik).

ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA) AVIA

**ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA)**
**ARRASATE**
- **-%2** gasolindegian erregaia erosita.
- **-%2** dendako produktuetan.

MONDRAGON LINGUA

**ARRASATE /OÑATI (18 urtetik gorakoentzako bazkideentzat)**
- **-%15** ingeleseko eta euskarazko ikastaroetan, SISTEMA KONBINATUAN. Ikasturte osoan.
- **-%15** aurrez aurreko eskoletan.
  Eskaintzaren epemuga: 2010/03/01

naren FISIOTERAPIA ZENTROA

**ARETXABALETA**
- **-%15** zerbitzu guztietan.

CLINICA DENTAL BERGARA

**CLINICA DENTAL BERGARA**
**BERGARA (Bazkidearentzat eta familiako batentzat)**
- **-%10** zerbitzu guztietan
- **-%15** inplanteetan.
- 120 eurotik gorako tratamenduetan garbiketa doan.

TXURi-URDiN Donostia

**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan, ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia.
- **-%20** larunbatetan eta igandeetan, ez bada zubia edo oporraldia.
- **-%10** zubi eta oporraldietan.

AQUARIUM DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

**DONOSTIA**
- Bi erosi bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

LARRAÑAGA AUTOESKOLA

**BERGARA**
- **-%15** inskripzioa ordaintzean.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

**Enpresendako:** Zure enpresa Goiena Klubean eskaini nahi baduzu jarri gurekin harremanetan.

**Telefonoa: 943 25 05 05 | Posta-e:** ***kluba@goiena.com***

Ander Gartzia > Saskibaloi jokalaria

# "Talde berean lauzpabost urtez jarraian egoteko gogo handia daukat"

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

**Ander Gartzia (Bergara, 1989) oporretan dago. Saskibaloi denboraldia bukatu ondoren, irailetik aurrera ze taldetan jokatuko duen erabaki behar du. Hainbat aukera ditu esku artean. Aurreko zapatuan hiruko txapelketan parte hartu zuen, eta harekin berba egiteko aprobetxatu dugu.**

**Alacanteko Meridiano Santa Pola taldean jokatu duzu. Nola joan da denboraldia?**

Oro har ,denboraldi txukuna egin dugula esango nuke. EBA ligan jokatu dugu, eta denboraldi osoan lehenengo hiru tokietan egon gara; askotan, lehenengoan ere bai. Baina bukaeran makaldu eta txarto ibili gara. Azkeneko hiru partiduak galdu egin genituen eta azken fasean sartzeko aukera barik geratu ginen. Zortzigarren tokian bukatu genuen txapelketa.

**Eta zure buruarekin gustura zaude?**

Bai. Minutu asko jokatu ditut. Taldearendako jokalari garrantzitsua nintzela esan zidaten arduradunek, eta hori erakusten ahalegindu naiz. Esperientzia hartzeko balio izan dit.

**Meridiano Santa Pola taldea ACB ligan diharduen Lucentum Alicante taldearen harrobia da.**

Bai, hala da. David Guardiak eta biok ACBko taldearekin entrenamenduak egin ditugu denboraldian zehar.

**Irailean Alacanten jarraituko duzu?**

Ez. Maila aldatzeko gogoa daukat, eta eskaintza batzuk ere baditut. Besteak beste, zilarrezko LEB ligan jokatzen duen Iruñeko talde batena. Agente berria daukat eta elkarrekin lanean gabiltza. Hiru edo lau aste barru hartu beharko dut erabakia.

**Hortaz, aukera baduzu EBAtik LEB mailara igotzeko.**

Bai, hala da. Gogoa daukat. Dena den, bi mailen artean ezberdintasunak badaude. Azkarrago jokatzen dute LEB ligan. Asko entrenatu beharko dut.

**Bergaran hasi zinen saskibaloian jokatzen. Baina ordutik hona talde askotan jokatu duzu, ia beti etxetik kanpo.**

Urte asko egin ditut etxetik kanpo. Gertuen, Gasteizen jokatu nuen Baskoniarekin. Gogorra da urtero taldea aldatzen ibiltzea.

Egia esan, gogoa daukat lauzpabost urtez jarraian talde berean egoteko.

**Dena den, taldea aldatzen duzun bakoitzeko, esperientzia berriak bizi izateko aukera duzu.**

Entrenatzaile, jokalari eta joko ezberdinak ezagutu ditut. Baina, lehen esan bezala, leku baten finko egoteko gogoa daukat.

**Saskibaloian egin dituzun urteetatik, zein da duzun oroitzapen onena?**

Zalantza barik, Baskoniarekin liga irabazi nuenekoa. Esperientzia ikaragarria izan zen. Jokalari ikusgarriekin jokatzeko aukera izan nuen, eta ACB liga irabazten duen talde baten aldagelako giroa ezagutu nuen.

**Aurten ere, Caja Laboral Baskoniak irabazi du ACB liga. Ezustean, gainera.**

Bartzelona zen liga irabazteko hautagai bakarra. Baina Dusko Ivanovicek esan zuen eurek bazutela zer esana. Ondo irabazi du liga Caja Laboral Baskoniak, eta merezimendu osoz.

**Abuztu bukaeran hasiko da munduko saskibaloi txapelketa Turkian. Jarraitzeko asmorik baduzu?**

Bai. Talde indartsuek parte hartuko dute.



Ander Gartziak hiruko txapelketan parte hartu zuen zapatuan. JULIO CALLEJA

**Zapatuan hiruko txapelketan parte hartu zenuen. Nola ikusten duzu Bergarako harrobiko saskibaloia?**

Lan ona egiten dihardute. Harrobiko hainbat talde dituzte. Gainera, elkarteak ekintza asko antolatzen ditu. Aldika-aldika saskibaloia kalera ateratzea inportantea da. Jokalari gazteak protagonista sentitzen dira. Ni euren moduan hasi nintzen.

LEB

**"Zilarrezko LEB ligan jokatu nahiko nuke irailean; Iruñeko talde baten eskaintza daukat"**

HARROBIA

**"Inportantea da aldika-aldika saskibaloia kalera ateratzea; jokalariek asko eskertzen dute"**



Gerardo Puente, Miguel Santos, Ander Gartzia eta Pablo Laso. MIREIA BIKUÑA

## Santos, Laso eta Gartzia saskibaloiaz berbetan Bergaran

Bergara Kirol Elkarteko saskibaloi taldeak mahai-inguru interesgarria egin zuen eguenean. Saskibaloiaren gainean jardun zuten Miguel Santosek, Pablo Lasok eta Ander Gartziak.

Hirurek euren esperientziak kontatu zituzten, eta han zeuden jokalari gazteei saskibaloia maitatzen jarraitzeko gonbita egin zieten. Bestalde, Miguel Santosek esan zuen kirol elkarte bat mantentzeko ezinbestekoa dela babesleen laguntza. "Erakunde publikoen laguntzarekin ez da nahikoa", esan zuen.

**OSASUNA** > OINETAKO GAITZAK

# Txankletak erabilita oinetako gaitz asko saihestuko ditugu udan

Udan oinetako gaitz arruntenak papilomak edo garatxoak –berrugak– eta mikosiak edo onddoak direla diosku Done Larrea podologoak


Umeak ortozik. GAELX

**LARRAITZ ZEBERIO** > ARRASATE

Udako oporrak hemen dira eta haur eta gaztetxo gehienak hondartzara eta igerilekuetara joango dira. Bainujantziak eta toallak prestatzen ditugun moduan, oso garrantzitsua da txankletak ere prestatzea. "Oinak urte osoan zaindu behar ditugu", dio Done Larrea podologoak, "baina are gehiago udan, gaitzak kutsatzeko garai aproposa da-eta".

**SINTOMAK**

"Papilomak edo garatxoak azaleko lesioak dira. Inkubazio aldia luzea da; 2 eta 20 hilabete artekoa. Horrek esan nahi du behin kutsatuta lesioa ez dela berehala azaleratzen. Lehenbailehen kentzea komeni da. Onddoak, berriz, 3. eta 4. behatzen arteko zonan agertzen dira. Erraza izaten da detektatzea; gorritasun eta azkura iturri izaten dira. Ez badugu garaiz harrapatzen oinean zehar zabal daiteke, eta azazkaletara edo beste oinera ere heda daiteke".

**ONENA, PREBENTZIOA**

Arazo horretan ere, prebentzioa garrantzitsua da. Txankletak erabiltzea, oinak egunero garbitzea, garbitu ondoren ondo lehortzea, besteen zapatarik, txankletarik edo galtzerdirik ez erabiltzea eta bero egiten duenean zapata itxiak ez erabiltzea dira adituak egiten dizkigun gomendioak.

**HEZIKETA** > KOMUNIKAZIOA

## Gutxienezko komunikazio errutinak beharrezkoak dira

**L.Z.** > ARRASATE

Gurasoen eta seme-alaben arteko komunikazioa funtsezkoa dela entzun diegu behin eta berriz adituei, baina zaila gertatzen da gehienetan. Seme-alabak nerabezaroan badaude, zer esanik ez. AGIPAD elkarteko Mayi Sarasketak argi dauka ezin dela kalitatezko komunikaziorik izan maiztasunik ez badago. Gutxienezko komunikazio-errutinak ezarri behar direla defendatzen du.


Umearekin jolasean. MELANCOLIE EN VELOURS

Nerabeei zuzentzen garenean, baina, komunikazio on bat izatea ez da gauza erraza. "Baina ez soilik nerabeei zuzentzen garenean", erantzuten du AGIPAD elkarteko kide Mayi Sarasketak, eta gure egunerokotasunean gure harremanen kalitatea hondatzen duten ohitura negatibo ugari ditugula gaineratzen du.

**ESPAZIO EGOKIAK SORTU**

Seme-alabekin, nerabezaroan, komunikazio egokia izan nahi badugu, beharrezkoa da adinean txikiak direnetik hastea. "Seme-alabak entzunak sentitu behar dira", dio Sarasketak. Hitz egiteko espazio eta une egokiak bilatu eta sortu behar direla gomendatzen die gurasoei. "Iniziatiba hartu beharra dago", ziurtatzen du, eta gurasoek sarri egin ohi dugun akats larri batez ohartarazten gaitu: mespretxatuak edo barregarri sentitu gabe adierazteko aukera eskaini behar diegu gure seme-alabei.

**HEZKUNTZA** > HIZKUNTZAK

## Eleaniztasunak eragina du atentzio-prozesuetan

**L.Z.** > ARRASATE


Manuel Carreiras. EITB

Manuel Carreiras Miramonen zabaldu berri duten Basque of Cognition Brain and Language ikerketa zentroko zuzendaria da. Neurozientzia kognitiboak ikertzen dituzte bertan, eta horren barruan, eleaniztasuna. Adituak dio gizakia edozein hizkuntza ikasteko gaitasunarekin etortzen dela mundura. "Bere komunitate linguistikoaren hizkuntzak dituen kontraste fonologikoak sintonizatzen joango da umea, eta 6-8 hilabeterekin kontraste horiek bereizteko gai izango da".

**ATENTZIO-PROZESUAK**

Zientziak ez du oraindik argitu gizakia zenbat hizkuntza menderatzeko gai den. "Ezagutzen ditugu lau hizkuntza menderatzen dituzten umeak", dio Carreirasek. "Aitak ingelesez hitz egiten badio eta amak frantsesez, eta, gainera, eskolan edo kalean euskaraz eta gaztelaniaz egiten badute iristen dira lau hizkuntzok menderatzera. Egia da beranduago hasten direla hitz egiten, gehiago kostatzen zaiela lengoaia garatzea. Beste kontu bat da hizkuntza horiek zein mailatan menderatzen dituzten. Elebakarrak direnen maila berean? Ikertu beharra dago oraindik, baina seguruenik ez. Hori bai, ikerketek erakutsi dute eleanitzak direnak atentzio-prozesuetan elebakarrak direnak baino maila hobea dutela".

Hizkuntza berriak ikasteko, zientzialariek erabakigarriak jotzen dituzten hiru faktore daude: pertsonaren adina, hizkuntza hori praktikatzeko duen aukera eta, edozein izanda ere, kontraste fonologikoak antzemateko duen erraztasuna.

**GURASOEN ERABAKIA**

Carreirasen esanetan, zientziak erakusten digu hizkuntza bat baino gehiago ikasteko gai garela. "Gauza bat da eztabaida politikoa, ni ez naiz hor sartuko. Eztabaida zientifikoan sartuko naiz ni. Gurasoek egiten duen autoan dago gakoa. Ume elebakarrek lexiko zabalagoa garatzen dute. Hizkuntza bakarrean, baina zabalagoa. Bestalde, laborategiko ikerketek erakutsi dute eleaniztasuna atentzio-prozesuak garatzeko onuragarria dela. Ulergarria da. Hizkuntzaz aldatzeko prozesua behin eta berriz egitera ohituta daudenek gaitasun hori gehiago lantzea, eta emaitza hobeak eman dituzte atentzio-prozesuak neurtzeko ikerketetan.

**OSASUNA** > SENDAGAIAK

## Parazetamolak alergia arriskua areagotzen du?

**L.Z.** > ARRASATE

Berriki egindako ikerketa baten ondorioa da lehenengo urtea bete aurretik parazetamola edo antibiotikoak hartu dituzten umeek eszema alergikoak garatzeko aukera handiagoak dituztela sendagai horiek hartu ez dituzten umeekin alderatuta. Bi sendagai horiek, parazetamola eta antibiotikoak, batera hartu badituzte arriskua areagotu egiten da. *Pediatric Allergy and Immunology* agerkariak publikatu ditu ikerketa horren ondorioak. 6 eta 7 urte bitarteko 13.908 haurrekin burutu dute ikerketa hori.

**PARAZETAMOLAREN AUZIA**

Ez da lehen aldia parazetamolaren kontsumoa ezbaian ipintzen dutena. Ikerketa berri horrekin ezin daiteke ondorioztatu parazetamola denik arazo alergikoen lehen iturria. Sendagaia, berez, infekzio bat sortu denean ematen zaie umeei. Hori ere ikertu beharra dago.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko,
**zatoz gure webgunera**
guraso.com



**> 'PERFORMANCE'-A**
Munibe plaza inoiz baino ederrago, Ramon Arantzabalen eskutik **> 30**



**> DANBAKA**
Uztailean zabalduko dute Danbakan izena emateko epea **> 31**



**> HAMARREKOA**
Jokin Lacalle: Sorotan Beletik Seiren musika taldera **> 40**

# Ehun urte eta gero ateak irekiko ditu berriro ere Zubiate labeak

**KULTURA ONDASUNA**
2002an Jaurlaritzak Kultura Ondasun izendatu zuen Zubiate

**BENETAKO ALTXORRA**
Gipuzkoan dagoen arabiar motako labe bakarra da

**GAURTIK ZABALIK**
Gaur, 12:00etan, egingo dute inaugurazio ekitaldia

**ARRITXU BARRUSO** > ESKORIATZA

Felix Zubiatek 1910. urtean utzi zion Eskoriatzan zeramika egiteari. Garai hartan ez zuen jakingo etorkizunean, buztingilearen figura eta lana ezagutzeko benetako altxorra uzten ari zela; zorionez berreskuratu eta balioan jarri ahal izan dena.

Eskoriatzako Zubiate labea Euskal Herrian gordetzen den zeramika labe adibide onenetakoa da, eta gaur egunera iritsi den mota horretako (arabiarra) bakarra Gipuzkoan. 2002an Eusko Jaurlaritzak Kultura Ondasun izendatu zuen.

Enrique Ibabek, *La Ceramica Popular Vasca* liburuaren egileak, 1974an aurkitu zuen labe zaharra, beste instalazio batzuen artean ezkutatuta. Labearekin batera zeuden tornu gela, lehorketa guneak eta zeramika biltegiak, baina gaur egun gordetzen den elementu bakarra labea da. Aranzadi zientzia elkarteak eraberritu du, hain justu.

**'BI ESKU BUZTINA LANTZEN'**
Bada, gaurtik astelehena, aurrera labea bera, eta XIX. mendeko buztingintza eta zeramikagintza gertutik ezagutzeko aukera izango da Eskoriatzan. Izan ere, Zubiate labea berreskuratzearekin batera, *Bi esku buztina lantzen* izeneko erakusketa ipini dute Intxaurtxueta kaleko aretoan.



Zubiate labea erakusketan ikusgai dauden zeramikazko pitxar batzuen atzean. JULIO CALLEJA



Tornu-gela erakusten duen panel informatiboa. J.C.




Vitoriano Larrañagaren zeramika bildumako piezak. J.C.

Erakusketa bost gunetan dago banatuta eta panel informatibo, argazki eta ikus-entzunezkoen bitartez zeramika ekoizteko prozesu guztia azaltzen da, hasieratik amaierara arte, XIX. mendera bidaiatuz.

**BOST GUNE, BOST URRATS**
Lehenengo gunean Zubiate labearen ezaugarriak eta historia ezagutuko ditugu, eta benetan daukan garrantziaz jabetuko gara. Ondoren Felix Zubiate moduko buztingileen eguneroko lana ezagutuko dugu. Erakusketaren bigarren geldiuneak lehengaia du ardatz; lurra nondik ateratzen zuten eta nola bilakatzen zuten buztin.

Hirugarren atalean, berriz, buztinari forma nola eman ikasiko dugu; ikus-entzunezko baten bitartez tornu-gela ezagutuko dugu. Eta behin forma emanda, piezak labean sartuko ditugu; erakusketaren laugarren gunea eta garrantzitsuena: labea bera.

Ganberan otea erreta lortzen zuten erregaia. Beroak labean gora egiten zuen, parrillako zuloetatik barrena, piezak zeuden tokira iritsi eta haiek egosi arte. Labekada bakoitzean hiru edo lau hilabetetan zehar egindako pieza guztiak sartzen zituen buztingileak. Hamabost ordu inguru behar izaten ziren piezak egosteko eta bi edo hiru egun haiek hoztu eta atera ahal izateko.

Erakusketaren bosgarren gunean prozesuaren emaitza ikusi ahalko dugu: amaierako produktua. Erakusketaren atal honetan Udalak 2005ean Vitoriano Larrañagari erositako zeramika bilduma ikusiko dugu: pitxarrak, platerak, ontziak, mahaiko zeramika, oheak berotzeko erabiltzen ziren botilak…

**INAUGURAZIO EKITALDIA**
Ehun urte eta gero Zubiate labeak gaur berriro ere ateak irekiko ditu; inaugurazio ekitaldia 12:00etan egingo dute. Ibarraundi museoarekin batera kudeatuko da Zubiate labearen gaineko erakusketa eta bisita gidatuak egingo dira. Horretarako, baina, komeni da aldez aurretik Ibarraundi museora deitu eta hitzordua egitea (943 71 54 53).



Osintxuko Musiraka taldeko dantzariak Ramon Arantzabalen margolana inguratzen. JOSETXO ARANTZABAL

**'PERFORMACE'-A** > 'GAU MAGIKOAK MUNIBE PLAZAN'

# Munibe inoiz baino ederrago

**NON:** Bergarako Munibe plazan.
**EGUNA:** Egubakoitza, ekainak 25.
**IKUSKIZUNA:** 'Performance'-a.
**IRAUPENA:** Ordu erdi.

**ARRITXU BARRUSO** > BERGARA

Egubakoitzekoa, benetan, gau magikoa izan zen Bergarako Munibe plazan. Ramon Arantzabalen aurora borealak txundituta utzi gintuen bertara gerturatutako guztiok.

Jakin-mina handia zen, Euskal Herriko "tamaina horretako lehenengo *performance*-a" zela iragarri zigun-eta Arantzabalek berak aurreko egunetan.

**MUNIBE PLAZA TOPERA**

Bergarako kaleetan, iluntze partean ez zen beste gairik. *Performace* hitza zer zen ere ez zekiten askok, baina bazekiten zerbait berezia eta ikusgarria gertatuko zela gauean Munibe plazan.

Hitzordua 22:30ean zen, baina ordu erdi lehenago Munibe plaza jendez beteta zegoen; lehenengo ilaran egon nahi zuten guztiek. Eserlekurik ez zegoela ikusi zutenean, atsekabea hartu zuten batzuek, baina, horrek ere misterio handiagoa ematen zion hitzorduari: "Nolakoa izango ote da ba gaur gaueko kontzertu hau?", zioen adineko emakume koadrila batek. Berehala jaso ko zuten erantzuna.

**MUSIKA, ARGIAK ETA DANTZA**

Ikuskizuna 22:30ean, puntu-puntuan hasi zen, Munibeko iluntasuna eta isiltasuna musikak eta argiek apurtu zutenean. Hurrengo hamabost minutuetan denetarik ikusi genuen: dantza garaikidea, antzerkia, argi-jokoak, musika eta artea, batez ere artea. Hori da-eta *performance*-ak egiten duena, arte diziplina desberdinak uztartu. Osintxuko Musiraka dantza taldeak lan bikaina egin zuen, eta azpimarratzekoa Manex Alberdi gaztearen maisutasuna. Finlandiako Jean Sibeliusen doinu sakon eta indartsuek ere magikotasuna gehitu zioten gauari. Ramon Arantzabalen margolanek lagunduta Bergarako Munibe plazan sekula baino ederrago ikusi genuen egubakoitz gauean.

Ikuskizunaren bigarren zatian ikusleak mugimenduan ipini zituen Arantzabalek; bere margolanak lasai ikusteko gonbitea luzatu zien; horrek ere harridura eragin zuen. Nora joan? Nola jokatu? Bukatu al zen dena?

Margolanak ikusi ostean, dantzariek lurrean zegoen tamaina handiko margolana erretiratu zutenean amaitu zen Munibe plazako gau magikoa.

Askori motz egin zitzaien gaua; Arantzabalen magikotasunean murgilduta gustura zeuden seinale. Lehen *performance*-a zen askorendako eta gehiago nahi zuten.

**MUXUAK ETA ZORIONAK**

Ramon Arantzabal ezkutuan, ilunpean, egon zen ikuskizunak iraun zuen bitartean; baina, behin bukatuta, berehala hartu zuen merezi zuen protagonismoa. Margolari arrasatearrak nahikoa lan izan zuen ikusleen besarkadak, muxuak eta zorionak jasotzen.



JULIO CALLEJA

## Adarrots taldeak folk doinuak ekarri zituen Sastiñara bariku iluntzean

Ekaineko barikuetako musika programazioa folk doinuekin amaitu zuten Aramaoin, Adarrots taldearen kontzertuarekin, hain justu ere. Aramaioko Sastiña ermitaren aurreko aldea musika instrumentuz bete zuten bizkaitarrek: alboka, flauta, klarinetea, biolina, perkusioa, gitarra... Instrumentu horiek guztiak, Rosa abeslariaren ahotsaz eta alaitasunaz lagunduta kontzertu ederra eskaini zuten. 'Haizekadak' diskoan jasotako kantuak eta konposizio berriak tartekatu zituzten.



ARRITXU BARRUSO

## Elkorori esker ona emateko kontzertua

Domeka eguerdian Bergarako Espoloia jendez bete zen Udal Bandak Jose Luis Elkorori esker ona emateko eskainitako kontzertua entzuteko. Musikariek, modu horretan, alkate ohiak Bergarako banda bizirik mantentzeko egindako lana eskertu nahi izan zuten. Kontzertuaren programaren atzeko aldean Elkororendako gutuna idatzi zuten.

**DANBAKA** > BADATOR LAUGARREN EDIZIOA

# Danbakaren laugarren edizioan izena emateko epea uztailean zabalduko da

Debagoiena, Debabarrena eta Durangaldeko taldeek hartuko dute parte

20 taldek bost kontzertu eskainiko dituzte urtarrilaren 14ko finalaz gain




Argazkian The Wet Band, azkeneko edizioa irabazi zuen talde mutrikuarra. GOIENKARIA

**LANDER MUÑAGORRI** > BERGARA

Burrunba eta danbatekoak berriro entzungo dira Elgetako Espaloia Kafe Antzokian urritik aurrera. Izan ere, Danbakaren laugarren edizioa martxan jartzear da. Beraz, laster inguruko bailaretan azken bi urteetan sortu diren proposamen musikal berriak ezagutzeko parada ezinhobea izango dugu.

Lehiaketa martxan jartzeko, ordea, lehenbizi partaideak behar ditu Danbakak. Horretarako, datorren uztailaren 8an zabalduko da izen emateko epea, irailaren 17a azken eguna izanda.

Debagoieneko musikariak elkarrekin lehiatzeko sortu zuen Goiena Komunikazio Kooperatibak Danbaka 2004an. Baina 2008ko ediziotik, Debabarrena eta Durangaldeko taldeak ere bere baitan hartzen ditu, "Debagoieneko taldeei pizgarri bat emateko, euren buruak gainditzeko" azaldu du Iker Barandiaranek, lehiaketako antolatzaileetako batek.

Eskualdeko komunikabideek ere jarraipen zuzena egingo diete lehiaketa eta taldeei. Musikarientzat euren musika zabaltzen hasteko aukera ona da Danbakakoa, eta hori ere pizgarri izan daiteke. GOIENKARIAk, Goiena Telebistak, Arrasate Irratiak edo Goiena.net hedabideetan lehiaketaren berri bertatik bertara emango dute. Hala, "Elgetara igo beharrik gabe kontzertuez gozatu ahal izango da, irrati eta telebistak emango dioten hedapenarekin" dio Barandiaranek.

Danbakaren webgunean izena ematen duen talde bakoitzaren fitxa bana ere egongo da, euren informazio eta musikarekin. Era horretan, kontzertuetara joan aurretik musikarien lanak ezagutzeko parada egongo da.

**IKUSLEEN PARTE HARTZEA**

Lehiaketan ezin izango du edonork parte hartu, denek bete beharko dituzte baldintza zehatz batzuk. Era horretan, taldeko kideren bat gutxienez Debagoiena, Debabarrena edo Durangaldekoa izan beharko du, eta taldeak ezingo du indarrean kontratu diskografikorik izan. Baldintza horiek, eta gainerakoak Danbakaren webgunean argitaratuko dituzte.

Izena ematen duten talde guztiek ez dute lehiaketan parte hartuko ordea. Horietatik hogeik joko dute lehiaketan, 19 epaimahaiak hautatuta.Talde horien izenak urriaren 4an emango dituzte aditzera, eta gainerako taldea ikusleek aukeratuko dute. Urriaren 8ra arte izango dute horretarako aukera, eta Internet bidez emango da bozka.

Hogeigarren taldea aukeratzeaz gainera, ikusleen saria ere egongo da. Hala, Internet bidez botoa emateaz gainera, Espaloia Kafe Antzokira bertara joaten direnek ere euren epaia eman deakete. Azken aukera horrek izango du saria aukeratzeko garaian pisurik handiena.

## Danbakako emanaldiak

**KONTZERTUAK**

Urriaren 22an, egubakoitza
Azaroaren 5ean, egubakoitza
Azaroaren 19an, egubakoitza
Azaroaren 26an, egubakoitza
Abenduaren 17an, egubakoitza

**FINALA**

Urtarrilaren 14an, egubakoitza

Kontzertu guztiak Elgetako Espaloia Kafe Antzokian izango dira, 22:30ean.

**Iker Barandiaran** > Antolatzailea

## "Talde guztiek irabazten dute zerbait. Diskoa ez bada, zuzenean jotzea"



GOIENKARIA

L.M. > BERGARA

**Iker Barandiaran aspalditik dabil Danbaka lehiaketaren atzean lanean. Musikazalea izaki, lehiaketa honek ekarpen handia dakarkio.**

**Zer ekarpen egiten dio Danbakak Debagoienari?**

Plataforma garrantzitsua da hemengo taldeek egiten dutena kanpoan erakusteko. Debagoienean ez dela punk-oi! musika bakarrik egiten erakusteko ere balio du.

**Eta zuri, pertsonalki?**

Musikazale bezala, gozatu egiten dut, talde berri asko ezagutzeko aukera ematen baitit. Danbakan sorpresa handiak jaso izan ditut, eta hemengo musika sustatzeko balio duen heinean, harro sentitzen naiz.

**Bertatik igaro diren talde batzuk osterantzean ezagun egin dira gainera. Sharon Stoner kasu...**

Bai, eta esan daiteke egin genuen kinielan asmatu egin dugula. Lehiaketako talde irabazleak ez dira hustu, eta ondoren jarraitu dutenek bere kalitatea mantendu dute.

**Eurentzako ere tranpolin aproposa da...**

Ezbairik gabe. Topikoa izango da esango dudana, baina talde guztiek irabazten dute zerbait. Saria batek jasoko du, baina denek kontzertua sala esanguratsuan jotzeko edo komunikabideetan jarraipen zuzena izateko aukera dute. Taldeak ezagutarazten hasteko tresna aproposa.

## Bideoklipa egiteko saria jasoko du gure ibarreko talderik onenak

Gaztelupeko Hotsak diskoetxearekin elkarlanean, disko bat argitaratzeko aukera edukiko du Danbakako garaileak, orain arte izan den moduan. Debagoieneko talde onenaren saria ere badago, 2008ko edizioaz geroztik; eta diskoa grabatzeko baino, bideoklip bat grabatzeko aukera edukiko dute aurten lehenengo aldiz. "Musikan gero eta indar handiagoa hartzen ari dira ikus-entzunezkoak, eta horregatik hartu dugu hautu hori" azaltzen du Iban Arantzabal Danbakako antolatzaileak. "Bideoklipa-ren zabalkundea era askotakoa da gainera, youtuben, norbere blog edo webguneetan, telebista lokaletan... gaur egun musikaz gain irudia ematea ere eraginkorra da oso. Eta zer esanik ez jendartean ezagutarazten hasteko", zehazten du.



GURE TALDEAK

## Los Galerna



Argazkian, ezkerretik eskumara, Jagoba Domingo, Jokin Vitoria, Aitor Moreno eta Josu Gartzia. JULIO CALLEJA

# "Hamar kantu grabatu ditugu, guztiak instrumentalak"

Los Galerna arrasatearrek 'En el purgatorio' izeneko lehen diskoa grabatu dute Loranca de Tajuñako (Guadalajara) estudioan

Ekainaren 12an egin zuten aurkezpen kontzertua, Arrasaten, surf-rocka egiten dute eta entzuleen erantzuna ona izan zela esan digute

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

**Jago eta Josu gitarra-jotzaileek, Jokin bateria-jotzaileak eta Moreno baxu-jotzaileak osatzen dute Los Galerna taldea. Beste talde batzuetako kide izan ondoren, lehen diskoa grabatu dute elkarrekin. Eurekin egin dugu berba.**

***En el purgatorio* izeneko diskoa kaleratu duzue orain. Nolakoa da?**

Hamar kantu grabatu ditugu. Guztiak dira instrumentalak.

**Gustura zaudete diskoarekin?**

Oso gustura gelditu gara diskoarekin. Hiru egunetan grabatu genuen gure lagun min batekin. Loranca de Tajuñako (Guadalajara) El Purgatorio estudioan grabatu genuen. Esperientzia izugarria izan zen, oso ona. Orain, nolako harrera duen ikusi beharko dugu.

**Ekainaren 12an aurkeztu zenuten diskoa Arrasaten. Pozik zuzenekoarekin?**

Oso ondo joan zen Taupa tabernan egindako aurkezpen kontzertua. Oso gustura egon ginen eta espero baino jende gehiago egon zen kontzertua hura ikusten.

**Surf musika egiten duzue. Nahiko apurtzailea da. Debagoienean egiten den musika oso bestelakoa da. Zuen lekua topatu duzue?**

Gu oso pozik gaude egindako ibilbidearekin, eta egiten dugun musikarekin. Surf-rocka da gure musika. Uste dugu gure lekutxoa egin dugula musika munduan.

**Zeintzuk dira zuen talde erreferenteak?**

The Ventures, The Shadows, Dick Dale, Link Wray, Duane Eddy, Ennio Morricone, Henry Mancini, The Surfaris, The Sonics, The Trashmen, Los Straitjackets, Lost Acapulco, Los Coronas eta The Penetrators, besteak beste.

**Ze helbururekin sortu zenuten taldea?**

Taldea 2008an sortu genuen. Gure asmoa zen musika instrumentala egitea. Ez da oso ohikoa, baina horretan gabiltza.

**Nortzuengana heldu gura duzue zuen musikarekin?**

Entzule guztiengana heldu gura dugu. Gure musika gustuko dutenengana eta gure musikan zerbait ezberdina ikusten dutenengana.

**Zuetako batzuek beste talde batzuetako kide izan zarete. Nola moldatu zarete denborarekin?**

Guztiak ibili gara beste talde batzuetan; hain zuzen ere, Five Twisters, Shaggy Daddy & The Troublemakers, Lost Souls eta Foxy Boxxi taldeetan. Musika gustuko dugu, eta beti dugu topatzen dugu denbora.

**Hasi zarete zuzenekoak lotzen?**

Bai. Hilaren 3an Zumaiako hondartzan egingo dugu zuzenekoa The Uski's taldearekin; eta uztailaren 9an Zarauzko *Koloore* festan parte hartuko dugu. Bestalde, abuztuan bira txiki bat egingo dugu Mediterraneo aldean. Almerian eta Granadan kontzertuak egingo ditugu.

Guztiak zaudete gure zuzenekoetara gonbidatuta!

**Lehen diskoa grabatu arren, aurretik bazenuten esperientzia *Extrañas criaturas* delako bilduman bi kantu grabatu zenituztelako. Nondik sortu zen bilduman parte hartzeko aukera?**

*Myspace* bitartez Alacanteko lagun bat ezagutu genuen. Hark Pantano Records izeneko zigilu independientea dauka. Euren bilduma baten gure bi kantu sartzeko proposamena egin ziguneian, ez genuen bitan pentsatu, eta onartu egin genuen. Aukera paregabea izan zen!




### Irudimena, ahotsa ordezkatzeko

Surf musika rock-and-rolletik dator, eta gitarra (oihartzundun) soinu eta erritmo bereziekin lotuta dator. Are gehiago, ohikoa da instrumentala izatea; hau da, ez abestea. Hori da hainbat musika taldetan aritutako Arrasateko gazte hauen erronka, eta azterketa zail hori gainditu egin dute.

Gitarra irudimentsuak, bongo eta bateria erritmo aberatsak, jai gogoa, Far West-eko oihartzuna, tronpeta eta aspaldiko rocka.

Kantu osatuena, borobilena, *Druida* da, nire ustetan. Ederra!

Iker Barandiaran


www.danbaka.com
DANBAKA
IV. MUSIKA LEHIAKETA
DEBABARRENADEBAGOIENADURANGALDEA
PARTE HARTU NAHI?
Debagoiena, Debabarrena edo Durangaldekoa bazara eta taldean zein bakarlari gisa bazabiltza, Danbaka Musika Lehiaketa zain daukazu. Lehiaketako talde onenak disko bat grabatu eta kaleratuko du. Debagoieneko talde onenak bideoklip bat grabatuko du.
Oinarriak eta informazio gehiago:
www.danbaka.com
irailak 17
izena emateko azken eguna

# iragarkilaburrak.com

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Abadiño.** Etxebizitza salgai Matienan: hiru logela, sukaldea, jangela, komuna, ganbara handia eta balkoia. 650 82 35 41

**Altsasu.** Familiabakarreko etxea salgai Altsasun. Bajera, txokoa, lorategia, sukaldea, egongela, 3 komun eta lau gela. Prezioa adosteko. 609 78 96 86.

**Altsasu.** Etxe atxikia saltzen dut Altsasun, leku lasaian, Urbasara begira, 4 logela, 4 komun, sukaldea, egongola, txokoa eta lorategirarekin. 300.000 euro. 609 78 96 86 (Iker).

**Aretxabaleta.** Etxebizitza salgai erdialdean. 72 metro koadro erabilgarri. Hiru logela, sukaldea, egongela, komun bat eta trastelekua. Prezio interesgarria. 659 64 67 38

**Arrasate.** 110 metro koadroko duplex polita erdialdean, guztiz jantzita. Bi logela (hiru egiteko aukera), bi komun, egongela eta sukaldea. Guztiz berriztuta. 65 metro koadroko ganbara. Berehala bizitzera joateko aukera. Prezio oso interesgarria. 673 32 78 91

**Durango.** Alde zaharra. 71 m2. Kanpoaldera begira. Altzariz jantzita. 2 logela. Egongela. Sukaldea. Komun bat. Guztiz berriztuta. Kanpotik (2006): fatxada, atalondoa, eskailera eta teilatua. Barrutik (2007): parketa (Elondo), sukaldea (Fagor elektratresnak eta junkers galdara ), gres, berokuntza (gas naturala),kristal bikoitzeko leihoak, ate blindatua. Berehala bizitzera joateko aukera. 229.000 euro. 607 71 53 53

**Elgeta.** 85 metro koadroko duplexa salgai. Hiru logela, bi bainugela, egongela beheko suarekin eta berogailua. Guztiz jantzia. 180.000 euro negoziagarri. Aukera aproposa gazte edo bikotearentzako. Zatoz ikustera. 685 75 18 91

**Elorrio.** Etxebizitza salgai Elorrion. Guztiz berriztua, ez dauka igogailurik. 3 logela, komuna, sukaldea, egongela eta trastelekua. Oso eguzkitsua eta oso polita; erdijantzita, bizitzera sartzeko gertu. Etorri ikustera! Telefonoa: 617 78 71 65

**Etxarri Aranatz.** 90 metro karratuko bigarren eskuko pisua Etxarri Aranazko erdigunean, baina zonalde lasaian. 1. esk. Erabat jantzita. 3 argi, aluminiozko leiho bikoitzak, beheko sua, berokuntza eletrikoa (gaueko tarifa). Eskailera gastuak 30 euro urtean. 3 logela, sukaldea, egongela jangela, komuna, despentsa eta 20 metro karratuko trastelekua etxabean. Prezioa adosteko. 636 15 85 35 (Bitori)

**Lana.** Etxeak ditu: 3 logela, egongela (beheko sua du), sukaldea (sutegi ekonomikoa berria), komuna,ganbara eta ukuikuak. Teilatua oso ongi dago. Baratzeak 150m ditu eta era ekologikoan landu da. Inguruak mendi eta naturazaleentzat ezin aproposagoak. Gasteiztik 45 minutura eta Lizrratik oso gertu. Egokia asteburu eta oporraldietarako. Ikustea merezi du. Deitu 699 24 86 99 telefono zenbakira

**Laredo (Kantabria).** Izugarrizko bistak dituen pisua hondartza ondoan. Urbanizazio pribatuan, berdegune askorekin, haurrentzako jolasguneak, tenis zelaia, saskibaloi zelaia, autoa garbitzekoa... Puntaleko zonaldean kokatua. Hall zabala, egongela eta jangela zabalak, bi bainugela osatu, 4 logela bakoitza bere armairu enpotratuarekin, sukaldea, elektrogailu berriekin osatua, ur beroa eta gas naturalarekin dabilen berogailua. 2 igogailu eta atezain zerbitzua. Ezin obeto dago bizitzera sartzeko. Partikularra. 6900715 72 .

**Oñati.** 67 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Bi logela, komuna, jangela, egongela eta sukalde guztiz hornitua. 264.000 €. 659 72 06 64

**Oñati.** Aukera bikaina. Etxebizitza salgai Olakuan. Egongela, hiru logela, sukaldea, bi bainugela, terraza. Laugarren pisua. Prezioa: 228.100 euro . Garajea aukeran. Deitu 945 22 26 62 edo 615 70 86 04 telefonora.

INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Martoko 85 $m^2$. Igogailuarekin.
- Bidekurutzeta. 85 $m^2$. Berritua.
- Artekale 60 $m^2$. Berritua. 153.258 €.
- Irizar pasealekua 70 $m^2$. Igogailuarekin.
- Zabalotegi 60$m^2$. Oso ondo
- Barrenkale 82 $m^2$. Berritua.
- Osintxu. 70 $m^2$. Igogailuarekin. 153.258 €.
- Bidekurutzeta 103 $m^2$. Duplexa. Oso ondo.
- Lorentxoko 73 $m^2$. Eraikitzeko.
- Burdiñate 53 $m^2$. Prezio ona.
- Matxiategi 65 $m^2$. Igogailuarekin.
- Osintxu 64 $m^2$. Berritua. 114.192 €.
- Bolu 96 $m^2$. Garajearekin.
- Simon Arrieta 70 $m^2$. Prezio ona.
- Zabalotegi 54 $m^2$. 154.761 €.
- Osintxu 62 $m^2$. Prezio ona.
- San Lorentzo 68 $m^2$. Berritua.
- Zubiaurre 52 $m^2$. Berritua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, Maduran, San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- Artekale. Logela bat. Berritua.
- **AUKERA.** Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua. **PREZIO EZIN HOBEAK: 249.210 €tik hasita**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa eta Ibarre auzoa. Etxe onak.
- Herriko plaza 95 $m^2$. Oso etxe ona.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 $m^2$. Berritua.
- San Roke 80 $m^2$. 80 $m^2$-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 $m^2$. Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

**943 25 05 05 sailkatuak@goiena.com**
**http://www.goiena.net/sailkatuak**

Egueneko 18:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**

**ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU. GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU/ALOKATU.**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Oñati.** San Lorentzon etxebizitza salgai. 96 metro koadro gehi garaje itxia gehi ganbara. Lau logela, egongela, sukaldea, bainugela, komuna eta bi terraza. 634 43 78 19

**Santo Domingo de la Calzada (Errioxa).** Bañaresko kanpinean. Bi gela, sukaldea, komuna eta egongela. 678 62 40 99

**Tolosa.** Lau logela, bainugela, sukaldea, sala, eta terraza konpartitua. Gela guztiak, bainugela barne leihodunak dira. Etxearen aurrealdean jardina du eta atzekaldean nahi denerako erabilgarri den terrenoa, guztira 500 m. Oso eguzkitsua. Tolosan bertan kokatua (espunien ondoan). Harremanetarako telefonoa: 606 96 64 32.

**Tolosa.** (Voith-Gorostidi)Eraikuntza berriko etxebizitza salgai (75m2).Promotorearen bidez zuzeneko salmenta.Sukaldea eta 2 komun ekipatuak, egongela handia eta 2 logela. Argitsua. 2 terraza eder eta baita trasteroa ere. Garajea eskuragarri. Premiazko salmenta. 658 72 92 88

**Tolosa.** Tolosako Berazubi auzoan etxebizitza salgai. 4. solairua, igogailuarekin eta ganbararekin. Gela guztiak kanpoaldera begira daude. 679 44 05 27.

**Zestoa.** Etxebizitza ia berria (6 urte) salgai Zestoan. 85m2, 3 logela, 2 komun, sala, sukaldea, trasteroa eta garaje itxia (18m2). Eguzkitsua eta oso egoera onean. Deitu 679 80 91 90 eta 628 06 94 12 zenbakira.

**Zornotza.** Etxebizitza salgai Euban. 3 logela, egongela bat, sukaldea, 2 bainugela, ganbara eta berogailua. 345 m2-ko lursailarekin. Aukera paregabea! Telefonoa: 695 70 18 58

### 102. EROSI

**Segura.** Seguran etxebizitza bila nabil. Gehienez 190.000 euro, gutxienez 2 logela eta balkoiarekin. Argitsua balitz primeran. 652 75 16 23

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan erdigunean, Biteri plazan. Sukaldea, egongela, komuna, hiru logela eta ganbara. 605 43 29 31

**Cadizen**, Puerto Santa Marian, Valdelagrana, Valdemar urbanizazioa. Hondartzako lehenengo ilaran etxebizitza ematen da errentan. Uztail osoan eta abuztuko lehenengo hamabostaldian. Bi logela, aparkalekua, igerilekua, tenisko pistak, aire girotua. 677 50 39 18

**Cadiz (Conil).** Apartamentua alokagai Conilen uztailean, igerilekua eta garajeagaz. Telefonoa: 600 59 65 38

**Cadiz (Conil).** Uztailean Conilen apartamentua alokagai, hondartza parean. 653 73 34 57

**Gasteiz.** Ikasleentzat pisua alokatzen da Gasteizen. Deitu 945 30 01 30 telefonora.

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Arrizuri, 97 $m^2$, garajearekin.
- Aranerreka, 80 $m^2$, oso ondo.
- Matxiategi, 72 $m^2$, eguzkitsua.
- Zabalotegi, 54 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 $m^2$, oso eguzkitsua.
- San Lorentzo, 78 $m^2$, oso ondo.
- Ibargarai, apartamentua, 40 $m^2$, berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparragirre, apartamentua, 40 $m^2$, berria, garajea eta trastelekua.
- Martoko, 87 $m^2$, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 $m^2$, ondo.
- Ibargarai, 80 $m^2$ oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 $m^2$ oso ondo.
- Zabalotegi 80 $m^2$, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 $m^2$, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Artekale, 81 $m^2$, oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 $m^2$, terrazarekin.
- Zurradero, 81 $m^2$, oso ondo.
- Zubieta, 125 $m^2$, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 $m^2$, berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 $m^2$.
- San Antonio, 65 $m^2$, eguzkitsua.
- Masterreka, 46 $m^2$, eraikuntza berria.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**
- Jatetxea erdialdean bezeroekin. Salgai edo errentan ematen da.
- Basarte. 69 $m^2$. Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 $m^2$. Apartamentua. Oso ondo.
- Artekale, 48 $m^2$. Apartamentua. Oso ondo.

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 $m^2$, berria.
- Sagarerreka, 58 $m^2$, aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

**ELGETA**
- San Roke, 75 $m^2$, ia berria.

**Irurtzun.** 3 logela, bista ederrak eta herri erdian. Deitu 600 38 74 00 telefonora.

**Marina D'Or.** Oropesa del Mar (Castello). Apartamentua ematen da errentan. Bi logela, egongela, sukaldea, bi komun eta terraza. Aparkatzeko plaza eta igerilekua. Hondartzako lehen lerroan. 685 75 62 51 edo 652 73 94 88

**Oñati.** Errekalde kalean 3. solairua errentan ematen da. Etxea hiru logela, komuna, egongela, bi terraza eguzkitsu eta sukalde handi batez dago osaturik, guztiz jantzita. Etxeak igogailua du. 652 76 63 46

**Oñati.** Lope Agirre kalean 110 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan. Sukaldea, egongela, lau logela eta bi komun. 659 53 87 62

**Otxandio.** Hiru logelako etxea alokagai. Guztiz jantzita. Telefonoa. 945 45 00 52

**Peñiskola (Castello).** Apartamentuak errentan. Hamabostaldiak. Bi logelakoak. Guztiz jantziak eta hornituak. Hondartzatik 50 metrora. 616 95 04 00 edo 948 41 00 79

**Peñiskola.** Etxebizitza alokatzen da. Abuztuaren 16tik aurrera, itsasertzean. Igerilekuak, toboganak, tenis zelaia,... Interesatuek, deitu 943 65 42 44 edo 690 06 76 45 telefono zenbakietara.

**Peñiskola.** 7 lagunentzat egokitutako apartamentua alokatzen da. Hondartza aurrean, balkoia, haize egokitua, igogailua, parkina eta bi igerileku. 617 42 89 52

**Ribadesella (Asturias).** Udarako etxebizitza ematen da errentan. Bost pertsonarendako egokia. 80 € egunean. 695 78 22 47

**Torrevieja (Alacant).** Atikoa ematen da errentan. Urbanizazio lasaia, hondartzatik gertu. 4-6 pertsonarendako lekua. Bi logela, terraza, solarium pribatua eta elkarteko garaje eta igerilekua. 609 07 41 27 edo 649 88 79 17

**Tolosa.** Etxebizitza alokagai Tolosan. Sukaldea, egongela, bainugela, 4 logela eta terraza konpartitua. Harremanetarako telefonoa: 606 96 64 32

**Vieux Boucau (Landak).** Apartamentua alokatzen dot udan Landetan, Vieux Boucaun, Boucanier urbanizazioan. Igerilekua, hondartza. Apartamentuak denetik dauka, labadora, telebista¶ Leku bikaina. Harremanetan jartzeko telefonoak: 94 673 27 69 eta656 75 95 37. E-posta: *joseba@erroteta.com*

**Zarautz.** Estudio bat alokatzen dut egonaldi motzak pasatzeko, asteburuak, asteak, hamabostaldiak. Sukaldea guztiz hornitua du, egongela txiki bat, logela bat eta bainu bat ditu. Dena berri berria. Zarautzen. 628 20 30 37.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 609 38 86 47

**Bergara.** Etxebizitzaerrentan hartuko nuke Bergaran. 699 09 46 26

**Donostia.** Donostian alokatzeko pisu bila gabiltzan bikotea gara. Ahal izanez gero Antigua inguruan. 628 04 15 26

**Eskoriatza.** Eskoriatzan ikasten dugun 3 neska gara eta hurrengo ikasturterako (2010ko iraila - 2011ko ekaina) pisu bat alokatu nahiko genuke. Pisuak 3 logela izan beharko lituzke eta ez litzaiguke inportako etxeak 4 logela izatea eta beste norbaitekin konpartitzea. 635 75 97 10.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Logela bat ematen da errentan unibertsitatetik gertu. 655 71 77 85 edo 943 79 56 64

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Deitu 619 78 63 41 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitatetik gertu. 663 72 37 44

**Arrasate.** Etxea osatzeko gela bat dugu. 630 71 35 83.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan. 619 78 63 41

**Arrasate.** Arrasatearra pisukide bila. Erdialdean eta egoera onean. 300 euro gastuak barne. 606 74 42 37

**Arrasate.** Lau logelako etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da uztail erditik aurrera. Bertan langileak bizi dira. 653 71 44 57

**Bergara.** Logela bat ematen da errentan, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. 230 euro hilean. Natalia. 670 85 86 68

**Bergara.** Logela ematen da errentan. Nahiago dugu kanpotarra izatea. 655 71 41 24

**Eskoriatza.** Pertsona arduratsua behar dugu etxebizitza osatzeko. Etxe berria da eta erdigunean dago. 650 82 83 48

**Iruñea.** Uztailean sartzeko, neska euskalduna eta langilea behar dugu pisua osatzeko Alde Zaharrean. Oso merkea da, hilero 160 euro. Argitsua eta txukuna: 616 71 69 66

**Oñati.** Logela ematen da errentan. 688 61 57 79

**Oñati.** Neska gaztea naiz eta neska baten bila nabil etxea osatzeko uztailaren 1etik aurrera. 677 37 04 81

**Tolosa.** Tolosako pisu bat partekatzeko pertsona behar da. Oso leku onean dago eta prezio onean. 627 98 53 76

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Arrasate.** 27 metro koadroko garajea salgai Obenerrekan. Ate automatikoarekin. Bi auto sartzeko aukera. Prezioa aztergai. Interesatuok deitu zenbaki honetara eta Anagatik galdetu. 662 34 77 77.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Durango.** Garaje bat alokatzen da Landako 7 kalean, hilean 40 euro. 94 681 81 51

**Gasteiz.** Garajea alokagai Zaldiaran Plazan, kotxe txiki batentzat. 50 €. 647 26 28 27

### 204. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Garaje itxia hartuko nuke errentan Arrasate pasealekuan edo San Andresen. 652 77 13 77

**Azpeitia.** Garaje bat nahiko nuke errentan hartu karabana bat gordetzeko. Berdin zait jabearekin konpartitzea. Gehienez 50 euro hilabeteko ordainduko nituzke. Interesatuak mesedez deitu 659 82 94 40 zenbakira.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**OÑATI**

**Neska euskalduna behar da kafetegian lan egiteko.**

**635 70 91 78**

### 402. ESKAERAK

**Abadiño.** Neska euskalduna uztaileko goizetan umeak zaintzeko prest. Kotxea daukat. 645 00 89 13

**Altsasu.** Haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest, goizez, astelehenetik ostiralera. Telefonoa: 617 61 71 38.

**Arrasate.** Emakumea gertu sukaldean lagundu, plantxa edo garbiketak egiteko, orduka. 647 16 40 49

**Arrasate.** Gizona gertu garbiketak egin, nagusiak zaindu edo sukalde laguntzaile lanetarako. 634 84 41 94

**Arrasate.** 20 urteko mutila gertu eraikuntzan, garbiketan edo zerbitzari lanetan aritzeko. 619 78 63 41

**Arrasate.** Bertako neska gertu nagusiak zaintzeko. Esperientzia daukat. 618 00 08 28

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu orduka lan egiteko: nagusi edo umeak zaindu, plantxa eta abar. 699 54 17 27

**Arrasate.** Emakumea gertu nagusi edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetan jarduteko. 659 37 41 95

**Arrasate.** Emakumea, 51 urtekoa, gertu pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. 943 79 60 89

**Arrasate.** 17 urteko neska, batxilergoa bukatu berri, udan umeak zaindu edo etxeak garbitzeko gertu. 665 72 57 64

**Arrasate** edo Bergara. Neska euskalduna gertu pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko. 943 53 27 17 edo 616 84 13 07

**Arrasate.** Gizona pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Orduka edo etxean egoteko prest. 697 54 28 76

**Arrasate.** Debagoiena. Neska gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. Erreferentzia onak. 638 93 11 48

**Arrasate.** Tabernako zerbitzari moduan urte askoan ibilitakoa naiz. Herriko jaietan edo astebukaeretan lan egingo nuke Debagoienan. Edorta. *edortamendi@yahoo.es* 617 89 41 03

**Arrasate.** Neska batek lana egingo luke orduka. Deitu 677 73 79 59 telefonora

**Arrasate.** Arrasateko mutil euskalduna gertu basoak garbitzeko: belarra, narrak... Deitu 653 01 83 43 telefono zenbakira eta Joxerengatik galdetu.

**Arrasate.** Emakume bat lan desberdinetan aritzeko gertu. 695 75 42 45

**Arrasate.** 17 urteko neska, batxilergoa bukatu berri, udan umeak zaintzeko gertu. 634 43 28 87

**Arrasate.** 18 urteko neska, batxilergoa bukatu berri, udan umeak zaintzeko gertu. 678 02 04 36

**Arrasate.** Mutila gertu zerbitzari, garbiketa, iturgin laguntzaile edo peoi lanetan jarduteko. 671 84 71 71

**Arrasate.** Emakume arduratsu, zintzo eta langilea gertu garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko. 660 13 94 95

**Arrasate.** Emakume arduratsu, zintzo eta langilea gertu garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko. 646 16 53 87

**Arrasate.** Neska ume zein nagusiak zaintzeko edo elkarteak garbitzeko gertu. Esperientzia daukat. Ordutegi malgua. Dorleta. 618 00 08 28 edo 943 79 82 43

**Arrasate.** Neska gertu nagusiak zaindu edo etxekolan eta garbiketak egiteko debagoienan. 678 80 11 54

**Arrasate.** Neska gertu etxean bertan bizi izaten lan egiteko. 679 04 42 68

**Arrasate.** 34 urteko neska brasildarra naiz eta Mari daukat izena. Etxeak garbitzeko prest nago. Ez daukat arazorik ordutegiarekin eta lehenago ere etxeak garbitzen aritu izan naiz. Nagusiak zaintzeko ere prest nago. 688 80 21 29 edo 943 79 51 28

**Arrasate.** Neska gertu elkarte, atari edota tabernak garbitzeko. 699 60 91 90

**Arrasate.** Arrasate edo Bergara. Emakumezko batek etxeko lanak egingo lituzke. Deitu 615 72 15 17 zenbakira.

**Arrasate.** 17 urteko neska, batxilergoa bukatu berri, udan umeak zaindu edo etxeak garbitzeko gertu Debagoienan. 665 72 57 64

**Aretxabaleta.** Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Mari. 943 53 33 92

**Aretxabaleta.** Aretxabaleta edo inguruetan bertako neska gaztea eskeintzen da uztailean, ordutegi arazorik gabe, haurrak zaintzeko. 663 73 49 95

**Aretxabaleta.** Aretxabaletako neska gazte arduratsua uztailean haurrak zaintzeko prest Debagoienan. 696 44 43 99

**Azpeitia.** Neska bat eskaintzen da partikularrak emateko, umeak zaintzeko edota denda batean lan egiteko. 665 75 68 73

**Azpeitia.** 20 urteko neska euskalduna, haurrekin lanean esperientziaduena bai begirale moduan, zaintzaile moduan... Arratsaldez haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke. 606 42 64 14

**Azpeitia.** 18 urteko neska euskalduna, haurrak zaintzen espezializatua dagoena, udan goizez haurrak zaintzeko prest dago. 665 71 08 96.

**Beasain.** Orduka lan egingo lukeen neska naiz: haurrak nahiz adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan. Asteburuetan ere lan egiteko prest nago. Esperientziduna naiz. 649 07 31 33

**Bergara.** Neska eskaintzen da zaintza lanetarako, orduka lan egiteko. Esperientziaduna. Iris. 677 73 79 59

**Bergara.** Paperak dituen emakumea pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. 606 64 16 09

**Bergara.** Emakumea gertu haurrak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. 610 34 97 88

**Bergara.** Neska bergararra etxeko lanak egiteko gertu. 943 76 28 12 edo 943 76 29 52

**Bergara.** Emakumea pertsonak zaindu edo garbitasun lanak egiteko gertu. Geriatria eta elikagaien manipulazioan tituluduna. 650 62 12 94

**Bergara.** Nagusiak zaindu edo garbitasun lanak egiteko gertu goizez eta gauez. Deitu 609 23 39 52 telefono zenbakira.

**Bergara.** Harakina gertu lan egiteko, hezurgabetzen esperientziaduna. Beste lan mota batzuk egiteko ere gertu. 610 91 33 40

**Bergara.** Lan bila dabilen emakumea naiz: pertsona helduak zaintzen, tabernak garbitzen... 695 75 42 45

**Bergara.** Ohitura oneko gizona naiz, eta lan bila nabil: pertsona helduak zaintzen, tabernak garbitzen... 697 54 22 45

**Bergara.** Ekainean eta uztailean eskolak partikularrak emango nituzke, lehen hezkuntzatik batxilergora arte. 671 41 22 17

**Bilbo.** Andra euskaldun bat, sukalde, plantxa eta etxeko lanak egiteko. Bilbon. 696 47 66 48 / 609 40 19 62. 14:00 16:00 edo 19:00 21:00 bitartean.

**Debagoiena.** Debagoieneko esperientziadun neska gertu nagusiak zaintzeko. 637 18 07 23

**Debagoiena.** Umeak arratsaldez zaintzeko prest nago. Esperientzia handiko neska. Bergara edo Arrasaten. 650 23 34 98

**Debagoiena.** Emakume gazteak nagusiak edo haurrak zainduko lituzke. 606 72 28 76

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak eta haurrak zaintzeko. 649 71 95 21

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko gertu emakumea. 649 72 00 23

**Debagoiena.** Neska euskalduna, arduratsua eta esperientziaduna, haurrak zaintzeko prest. Arratsaldetan, 13:00etatik aurrera libre nago. Interesa baduzue deitu zenbaki hauetara: 618 09 47 87 edo 943 78 15 10

**Debagoiena.** Lan bila nabil, pertsona edadetuen zainketarako edo atarien garbiketa lanak egiteko. Gainera, peoi lanposturako ere gertu nago. Enpresen segurtasun zerbitzuetan lan egiteko gertu. 666 08 58 49.

**Debagoiena.** Gaztea gertu eraikuntzan edo bestelako arlo batean lan egiteko. 696 48 42 50

**Debagoiena.** Emakumea gertu lan egiteko. 606 64 16 09

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. Deitu 689 93 58 41 telefonora.

**Debagoiena.** Gaztea gertu eraikuntzan edo bestelako arlo batean lan egiteko. 696 48 42 50

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. Deitu 689 27 94 21 zenbakira.

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu Arrasaten, Aretxabaletan edo Bergaran. 662 08 22 03

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu. Umeak zaindu, garbiketa lana edo jatetxeetan lan egiteko. 600 24 58 27

**Debagoiena.** Esperientziadun mutila gertu nagusiak zaindu edo zerbitzari lanetan jarduteko. Ordutegi malgua. 646 07 79 60.

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketa lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizi izateko eta astebukaeretan lan egiteko gertu. Deitu 699 60 91 90 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka edo etxean bertan bizi izateko prest. 650 67 16 47

**Debagoiena.** Esperientziadun neska gertu umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko, bertan bizi izateko edo kanpoko langile gisa. 689 88 97 66

**Debagoiena.** Neska gertu nagusi edo umeak zaintzeko. Hilean 250 euro. Deitu 14:00etatik 15:00etara edo 17:00etatik 19:00etara. 943 53 29 18

**Donostia.** 22 urte ditut eta lan bila nabil Donostian , uztailerako eta abuzturako. haurrak zaindu, klase partikularrak, edota ostalaritza. Idatzi mezu bat: *udakolana@gmail.com* helbidera.

**Donostia.** Neska euskalduna eskaintzen da udan umeak zaintzeko, irailetik aurrera goizez ere. Baita etxeko lanak egiteko ere. 665 71 99 93. Ane

**Durango.** 20 urteko Durangoko neska, ingeniaritza ikaslea eta *Advanced* tituluduna, 16 urtera artekoentzat partikularrak emateko zein ume txikiak zaintzeko prest, ekaina uztaila bitartean (abuztuan ez). Telefono zenbakia: 652 73 23 70

**Durango.** Durangaldeko andra umeak eta edadetuak zaintzeko prest. Zaintza ordukakoa ere izan daiteke edo laguntzaile moduan etxe edo ospitaletan. Telefonoa: 649 13 53 81

**Durango.** Pertsona bat behar da, umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko, egun osoan. Autoa behar da. 618 82 20 48.

**Durango.** Emakumea pertsona edadetuak zaintzeko prest. Ines. Telefonoa: 699 74 57 23

**Eibar.** Neska euskalduna eskaintzen da uztailean umeak zaintzeko. Baitaetxeko lanak egiteko ere. Eibar edo inguruetan. 618 81 40 64. Ainhoa.

**Elorrio.** Neska euskalduna eta esperientziaduna arratsaldetan (astelehenetik ostiralera) haurrak zaintzeko prest. Orain hasteko edo irailetik aurrera. Haur Hezkuntzako goi mailako heziketa zikloa eginda daukat, eta gaur egun Hezkuntza Bereziko ikasketak egiten ari naiz. 688 64 06 04 (arratsaldetan deitu).

**Elorrio.** Neska euskalduna abuztuan haurrak zaintzeko edota partikularrak emateko prest. 600 36 13 81.

**Etxarri Aranatz.** 41 urteko emakumea Etxarri Aranatzen lan egiteko prest. 679 86 84 13

**Lasarte-Oria.** Neska eskaintzen da haurrak edo helduak zaintzeko. Ekainean goiz edota arratsaldez (goizez bada hobe). Telefono zenbakia: 607 88 13 91

**Lezo.** Neska euskalduna (EGA) eskaintzen da haurrak zaintzeko. Arduratsua eta langilea, aurretik ere haurrak zaintzen lan egina. 667 23 93 72.

**Oñati.** Umeak zaintzen ditut uztailean; esperientzia handia. Neska euskalduna naiz, ikaslea. 651 70 85 13

**Oñati.** Neska euskalduna etxebizitzak eta atarteak garbitzeko gertu. 635 70 07 92

**Oñati.** Neska gaztea umeak zaintzeko edo dendan laguntzaile modura edo tabernan lan egiteko prest, uztailaren 1etik aurrera. 677 37 04 81

**Tolosa.** Tolosako bi neska gara, ikasleak eta arduratsuak. Udan haurrak zaintzeko prest gaude, uztaila edo abuztuan eta goizez edo arratsaldez. 21 urte eta esperientziarekin. 675 71 55 97

**Tolosa.** Udaran umeak zaintzeko prest egongo nintzateke. Esperientzia dun neska euskaldun bat naiz. 680342358

**Tolosa.** 29 urteko neska lan bila dabil, ume zaintzen, etxeak garbitzen, tabernan... Denetan esperientzia. 635 70 22 50

**Zarautz.** 18 urteko neska zarauztarra naiz eta ekaina eta uztailerako lan bila nabil. Umeak zaintzeko eskaintzen naiz Zarautzen bertan edota inguruko herrietan. Esperientzia pixka bat badut bi umeekin eta nire burua arduratsua ikusten dut. Edozein lanerako ordutegira irekita nago. Deitu 652 76 25 47 telefonora.

**Zarautz.** Gizon euskalduna naiz, asteburuetan ere lan egiteko prest nago, edozein lanetarako: jardinero, mahastietan eta abar. 658 73 08 08

**Zumaia.** Neska arduratsua eskaintzen da udan lan egiteko ekainaren 1etik aurrera. Umezain, tabernari gisa edota berdin zait zeinlanetan aritu. Lanerako gogo handiarekin! 688 63 33 42 (Leire)

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**DBHko eskolak** jasoko nituzke. 18:00etatik aurrera deitu 605 26 24 62 telefonora.

### 502. EMAN

**Aretxabaleta.** Aretxabaletan zein inguruetan neska gaztea prest dago uztailean 15 urte arteko gazteei eskola partikularrak emateko (euskara, ingelesa, matematika...). 663 73 49 95

**Arrasate.** Esperientziadun sukaldaria zure etxean bertan janaria prestatzen irakasteko gertu. 650 40 29 69

**Arrasate.** Neska euskaldun esperientziaduna prest ekainaren 3tik uztailaren 31ra arte 2. batxilergorarteko eskola partikularrak emateko. Joana. 669 20 63 21

**Arrasate.** Debagoienan 21 urteko neska euskaldun eta ingeniaritzako ikaslea uztailean klase partikularrak emateko prest. Deitu 686 28 76 80 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Ingeniaritzako ikaslea gertu eskola partikularrak emateko, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako haurrei. 943 76 50 97 edo 678 47 43 54.

**Bergara.** Ingeleseko eskola partikularrak ematen ditut. Elkarrizketa lantzeko ere bai. Deitu 654 94 87 26 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Udarako klase partikularrak. 6 12 urte arteko umeei udan klase partikularrak emateko prest. Eskoletan esperientzia dut. 635 75 05 26.

**Donostia.** Ingeniaritzako ikaslea naiz, eta eskola partikularrak ematen ditut udan: zientziak, letrak eta hizkuntzak. 670 52 54 13.

**Donostia.** Ingeles irakasle tituluduna: klase partikularrak edota taldekoak emango nituzke, errekuperaketak, mintza praktika, berrikusketa... Ikaslearen beharrak asetzeko plangintza pertsonalizatuak (maila, materiala eta ordutegia). 943 47 20 29

**Durango.** 4. mailako Telekomunikazio Ingenieritzako ikasle euskalduna Batxilergoko eta DBHko klaseak Durangon emateko prest. Espezialitatea matematika klaseetan. 635 74 61 76

**Durango.** Ingeleseko irakaslea partikularrak emateko prest (uztaila, abuztua eta iraila). Deitu 625 70 98 46 telefono zenbakira.

**Durango.** 17 urteko Durangoko gazte euskalduna 8 eta 16 urte bitarteko umeei klaseak emoteko azaltzen da. Batxilerra amaitu berri dot eta edozein ikasgaietako klaseak jasotzeko aukera emoten dot, bai euskaraz zein gaztelaniaz. Deitu 670 55 29 21 telefono zenbakira.

